



245. zenbakia

2003-7-18

Goierritarra



Ordiziako
jaiak

Gazte
informazio
bulegoa

Tetratro
antzerki taldea

Eñaut Gereñu
Munduko
txapelketaren
atarian



kolore freskoak eta iraunkorrak

digital errebelatuak bertan
argazkitik argazkira zuzenduak

PHOTOJET

FUJIFILM



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

www.anzizar.com



EUROLAN 4x4-k zerbitzu berria ireki du Goierrirako: ANZIZAR



THE LAND ROVER EXPERIENCE

ANZIZAR Beasain-Zumarraga errepidea Telefonoa: 943 88 17 00

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Agurtzane Bikuña, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Mari Flor Mendizabal, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Landarlan taldea eta Uxue Barandiaran.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Alarpe zalditegiak antolaturik Uztailaren 20an Ordiziako III. Raid proba

Hirugarren urtez jarraian, uztailaren, raid, zaldien iraupen luzeko proba jokatu da Ordizian, Lazkaomendiko Alarpe zalditegiak antolaturik. Aurten, besteetan baino beranduxeago izango da, uztailaren 20an.

Euskadiko txapelketarako proba baliagarria izango da Ordiziakoa. Goizeko 10etan hasiko da lasterketa, anexotik Aurretik, goizeko 8etan hasita, albaitariak aurre azterketa egingo die zaldiei. Zaldibia eta Aralarren barrena egingo dute ibilbidea.

Guztira 80 kilometroko ibilbidea egin beharko dute, hiru fasetan banatuta. Lehenengo zatian 33 kilometro egin beharko dituzte, bigarren 20 eta hirugarren 27. Proba bukatzeko gehienezko denbora, 9 ordukoa izango da. Gutxienezko abiadura, orduko 10 kilometrokoa izango da. Afrratsaldeko 7etan itxiko da kontrola.

Fase bakoitzean eta amaieran, albaitariak zaldiak aztertuko dituzte. Besteak beste bihotz taupadak eta arnasketaldiak neurtuko dizkiete. Bihotz taupadak minutuko 56 pultsaziokoa izan beharko du eta arnasketaldia, 24-48 minutuko. Zaldiek gutxienezko baldintzak ez badituzte betetzen, zaldiak eliminatu egingo dituzte epaileek.

Sariak


Parte hartzaile bakoitzak oroigarri bana jasoko badute ere, lehenengo sailkatuentzako honako sariak izango dira: irabazlearentzat garaikurra eta 300 euro; bigarrenarentzat, garaikurra eta 180 euro; hirugarrenarentzat, garaikurra eta 150 euro; eta laugarrenetik seigarrenera, 60 eta 40 euro.

Goierritarra Goierri kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Desobedientzia eta independentziaren aldeko aldarrikapena Goierrin

Enrike Lopez Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izandakoa desobedientzia eta independentziaren aldeko ibilaldia ari da burutzen, oinez, Euskal Herri osoan. Goierrira uztailearen 8an iritsi zen. Ormaiztegitik barrena sartu eta uztailearen 11ra bitartean Goierriko herrietan zabaldu zuen Lopezek bere al-



darrikapena. GOIERRITARRA aldizkarira ere egin zuen bisita. "Independentzia geure herriak (eta euskarak) bizirik irauteko duen bide bakarra da. Alderdi aber-
tzaileek estatutoa edo autodeterminazioa eskatzen dutenean, premiarik garrantzitsuena bigarren maila batean ipintzen dute, arazoa luzatuz. Geure lurra defendatzeko eskubide osoa daukagu. Geure duintasuna ez dago gehiengoaren jokoaren menpean ipintzerik. Honetan ere alderdiek baino haruntzago joan behar dugu", dio Lopezek.

Mikel Korta Xaki auzian auzipeturik

Ordiziako Mikel Korta Xaki auzian auzipetu du Enrique Molina Auzitegi Nazionalako fiskalak. 18/98 sumarioan auzipetutako 61 kideren kontrako ahozko epaiketa abiatzeko eskatu du. HBren nazioarteko taldeko Mikel Korta 2000ko urtarrilean atxilotu eta kartzelan sartu zuten Baltasar Garzon epailearen aginduz. "ETAren kanpo harremanetarako ministerioa" zen Xaki Garzonaren esanetan.

Oporrak

Uztailaren 23tik abuztuaren 25era bitartea oporrak hartu ditugu, GOIERRITARRA aldizkariko langileok. Hurrengo aldizkaria, beraz, irailaren 5ean izango duzue. Bitartean, edozer gauza dela, erantzungailuan (943889612) edo posta elektronikoan (goierritarra@topagunea.com) utzi mezua. Ondo ibili!



Goierriko Gurutze Gorria boluntario bila

"Goierriko beharrei erantzuna emateko, zure laguntza funtsezkoa da". Honela dio Goierriko Gurutze Gorria boluntarioak bilatzeko egiten ari den kanpainak. "Gurutze Gorrian boluntario izateak, norbere denbora libretik gizarte-arloko ekintzaren bat egiteko denbora eskaintzea esan nahi du, beti ere, Erakundeak dituen gizarte-interesen eta helburuen markoaren barruan eta bizi garen gizartearekin elkartasun-konpromiso bat izatea beste asebetetze-ordainsaririk gabe", diote Gurutze Gorriko ordezkariak.

Anbulantziak, Eguneko zentroak, inmigrazioa eta formazioa atalak ditu Gurutze Gorriak eta bertan parte hartu nahi izanez gero, ikastaroak egingo dira urrian. Beraz, izena emateko telefono zenbakia, 943 16 21 50, goierritarren eskura dauka Goierriko Gurutze Gorriak.



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea


Eguneroko menua	Afariak
eguerdi eta gauetan	bataioak
larunbatetan ere bai	jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51
Faxa: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.



Irriki Futbol Eskolan izena emateko epea zabalik

2002ko urrian sortu zen Irriki Futbol Eskola federatuak izan aurretik gaztetxoak trebatzen joan zitezen. Denboraldia amaituta balorazio positiboa egin dute teknikariek, guztira 55 gaztetxo aritu baitira 3 sailetan banatuta, umetxoak (6-7 urte), umeak (8-9 urte) eta gazteak (10-11 urte). Teknikarien arabera *“proiektuaren helburu nagusiak bete dira, denentzako proiektua izan da, kirol espiritua landu dugu, kirolaren baloreak erakusten jardun dugu, kirola gizarteratu eta kulturalki baztertuagoak daudenei ireki diegu. Benetan lan bikaina egin da, baina espero dugu datorren urteetan aurtengo maila hobetzea”*.

Urtean zehar entrenamenduak (Segurako futbol zelaietan), lagunarteko partidak eta txapelketak izan dituzte. Bitan hartu dute parte, Biarritzeko Jean D'Arc txapelketan eta orain gutxi arrakasta handiz burutu den Donosti Cup-ean. Gauzak honela 03-04 denboraldian pentsatzen jarriak daude jada Irriki Futbol Eskolakoak eta deia luzatu dute bertan parte hartu nahi duten gazteok dei dezatela telefono zenbaki honetara uztailaren 31a baino lehen: 655707900 (Pinti). Kontuan izan jende kopurua mugatua izango dela, beraz, lehenbailehen deitu.

Juan Carlos Garcia 'Pinti' Aitzgorri F.K.eko koordinatzailea

Juan Carlos Garcia 'Pinti' Aitzgorri Futbol taldeko infantil taldearen entrenatzailea da. Infantilen Ohorezko mailan dagoen taldea da Aitzgorri. Laugarren denboraldia jarraian, Goierri, Gipuzkoako futbol mailarik gorenean izan da. Seguran du entrenamentu lekua Aitzgorri taldeak, orain arte, belar artifizialeko futbol zelai bakarria zuen herrian.



Arrakasta horren arrazoitzat, honakoa dio 'Pinti'k: *“Harrobitik lan egitearen emaitza da, tituludun teknikariak behe mailan*

egotea eta ahalik eta jokalaririk lan egitea, kirol gaitasuna bakarrik kontuan hartu gabe”. 'Pinti'k gaineratu duenez, *“klubeko teknikariak adinez txikiagoak diren haurrekin lan egiteko proiektuan buru belarri sartu ziren, Gipuzkoako araudiari jaramonik egin gabe. Eredu batzutan ospe txarra eman digute baina horrek ez du eragotzi ekipo federatura prestakuntza hobearekin iristea”*.

Futbol entrenatzaileak etorkizunari buruz, honako hausnarke-ta egiten du: *“denboraldi honetan talde bakarria izango Goierri-n, alebin, infantil Txiki, Ohorezko Infantil eta kadete mailako talde-en egitura antolatua izango duena. Honek ahailegin ikaragarria eskatuko du, eta horregatik beharrezkoa ikusten da oinarritzko futbolaren koordinatzailearen figura sortzea”*.

Ondoko koadroan Irriki Futbol Eskolari buruzko informazioa azaltzen da. Irriki Futbol Eskolak ere Seguran du egoitza. Bien artean zein harreman dagoen galdetu diogu: *“Irriki Futbol Eskola kirol eskolarraren barruan dauden hutsuneak betetzeko sortu zen. Horregatik ikusi zen 6 eta 11 urte bitarteko haurrek kalitatez eta instalakuntza egokietan futboleko jarduteko beharra ikusi zen”*.

Uztailaren 21ean aurkezpena

2003-2004 denboraldia uztailaren 21ean aurkeztuko da. Arratsaldeko 7etan egingo da talde guztien aurkezpena Seguran. 10 eta 14 urteko futbol jokalariei dei berezia egin nahi die lana eta proiektua ezagutzeko. Goierriko haur guztiak gonbidatu nahi ditu, oro har, ateak denei irekitzen baitizkie.

Joseba Belokik eroriko larria izan du Tourrean

Uztailaren 14an, Frantziako Tourreko etapa madarikatua bihurtu zen Joseba Beloki Lazkaoko txirrindulariarentzat. Helmugara iristeko 5 kilometro falta zirela, erori eta zauri larriak izan zituen Belokik. Tourra utzi beharra izan zuen.

Beste goierritar bat ere badugu Frantziako Tourrean: Aitor Garmendia itsasondarra.

Kate motzean

Goierritarik gehienak noiz joaten dira oporretan?
Abuztuan eta irailean.

Gehienak zer aurkitzen dute?
Eguraldi ona. Familiek lasaitasuna eta gazteek parranda eta leku berriak ezagutzea.

Zein toki dira ohikoenak Espainiar Estatuan?
Irlak eta hondartza. Mediterranearen kostaldea orokorrean.

Eta Europan?
Italia, Grezia eta Eskandinavia.

Eta munduan?
Egipto, Tunez, Estatu Batuak, Hego Amerika eta Bali.

Aurten saldu duzun bidaiarik bereziena edo bitxiena?
Afrika barreneko ibilbidea, kamioiez. 32 egun, Hego Afrika, Zimbabwe, Zambia, Namibia, Tanzania eta Kenyan barrena.

Zenbat eguneko bidaiak egiten dira?
8 eta 15 egunekoak.

Familiak nora joaten dira?
Irletara eta Penintsulako kostaldera.

Eta bikoteak?
Irletara eta Karibera.

Eta koadrilak?
Europara.

Eta jubilatuek?
Benidormera.

Bidaia aurretik dena antolatuta ala antolatu ga-be dute nahi du-te nahiago goierritarrek?
Antolatuta.

Zure ametsetako bidaia zein da?
Ez daukat bat bereziki, dena ezagutuko nuke.

Ezagutu duzun tokirik politena edo gustukoena?
Hondartzetan, Polinesia eta paisaiari dagokionean, Afrika Beltza.

Noiz hartzen dituzu oporrak?
Ahal dudanean.

Aurten nora joateko asmoa daukazu?
Oraindik ez dakit.



Iker Garmendia
(Urola bidaiak)

IRUDI - Foto, S.L.
Javier Fernández Sánchez
Erroilu bat **doan** negabibo errebelatu bakoitzarekin
Argazki zaharren retoke digitala
San Inazio kalea, z/g BEASAIN
Tel./Faxa: 943 888 100

Nagusi
Optika
Osakidetzarekin
hitzarmenari atxikiak
☎ 943 161 999 Nagusia, 10 BEASAIN

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA
TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

IBAI-ONDO
AROSZTEGIA
Koltxoak
Somierak
Sofak,
altzari mazizkoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak
multisac
— SYSTEM —
☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

mazda
Bikar, S. A.

☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma BEASAIN

Gaztelu
● Iturgintza
● Berogintza
Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

Transgenikoak: aurrerapena ala mehatxua?

Transgenikoa Genetikoki Eraldatutako Organismoa da (GEO), alegia artifizialki sortua izan den izaki bizia, bere geneak manipulatu. Horrela birus, bakterio, landare, animalia edota gizaki baten gene bat edo batzuk isolatzen dira, beste izaki baten ondare genetikoan sartuz, adibidez landareen kasuan pestizida batekiko tolerantzia edo intsektu batzuekiko erresistentzia sortuz edota produktibitatea handituz.

Transgenikoak sortu eta komertzializatzen dituzten enpresa bioteknologikoek haien abantailak etengabe aldarrikatu dituzte: izurriteei aurre egiteko pestiziden kantitate gutxiago behar dutela, eta uztak ugariagoak izanik, herrialde pobreen gose-tre kronikoak bukatuko direla.

Baina transgenikoak sortu zirenetik, ekologista, nekazari, zientzilari, eta kontsumitzaileek azaldutako zalantzak eta aurkako iritziak errealitate bihurtu dira. Horrela EEBB eta Kanadan lehenengo haziak erein zirenetik, uztak murriztagoak dira eta pestiziden eraginkortasuna galtzen ari da, pestizidekiko erresistenteak diren "super belar txarrak" sortzen eta zabaltzen ari direlarik, baita golf zelaietara ere.

Gainera giza osasunarengan elikagai transgenikoen kontsumoak izan ditzakeen eraginei buruzko ikerketarik ez da egin. Hori dela eta, zehaztasun printzipioari kasu eginez, beraien komertzializazioa debekatu beharko litzateke, transgenikoen kontsumoa kaltegabekoa dela, frogatzen ez den bitartean.

"Transgenikoen kaltegabetasunari buruzko frogarik ez dago."



Transgenikoen merkatua, lau multinazionalen eskuetan kontzentratu da: Syngenta (Novartis eta AstraZenecaren bategitea), Monsanto, BayerCropScience (Bayer eta Aventis CropScienceren bategitea) eta Dupont). Hauek haien etekinak ziurtatu eta handitzeko, hazi transgenikoak eta pestizidak batera saltzen dituzte. Transgenikoekin pestizida gehiago erabiltzen dela ere baieztatuta da, adibidez soja transgenikoa Roundup Readyren landaketan % 11'14 pestizida gehiago erabiltzen da.

Hirugarren munduko gosea berriz, fenomeno oso konplexua izanik, transgenikoen bitartez ez da amaituko, alderantziz baizik, hango nekazariak pobreagoak izango dira, hazi transgenikoak ohikoak baino dexente garestiagoak direlako, eta bestetik gosea elikagaien banaketa bidegabearekin lotuagoa delako, hauen ekoizpen faltarekin baino.

Edurne Huesa

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

LIBURUA

✓ **"Qué son los alimentos transgénicos"**, (Jorge Riechmann, Integral 2002). Gure gizartearen etorkizunarekiko oso erabakiorra izango den gai polemiko honi buruzko zalantzak argitzeko liburu ezin hobea.

JAKIN BEHARREKOAK

✓ **Espainiar estatua aberatsa da hegaztiak ikuskatzeko guneetan.** Batik bat udazken aldean, iparraldetik elikagai eta giro aproposago bat bilatuz udazken aldera datozenekin, ekosistema orekatsuak bitarte harreragune apartetan bilakatzen dira. Atal berezia hegazti urtarren kasuan gurek, anatidekin. Batzbestek 12 bat gune jasotzen dira giltzarrikoak eta horien artean Ulibarriko urtegia daukagu, autoz 40 bat minutura daukagun aialdirako toki paregabea.

✓ **Jada, uztaila betean gaude eta galeperrak gerturatzeko hasi zaizkigun bezala, beste hegazti batzuk hasi dira urrunerako bidaia prestatzen, mediterranean itsasoz bestalde-rantz. Hauek, bakarka, bikoteka ibili badira ere, orain, elkartzen hasten dira, erreserbak hartu eta elkarrekin, beren eguneroko ohitura batzuk aldatuz, antolatuta eta abiatzeko prest. Urtero bezala, aurtengo lehenak Sorbeltz Arrunta (Apus apus, Vencejo común) eta Miru Beltza (Milvus migrans, Milano negro) dira. Azken hauek irudi ikusgarriak marrazten dituzte zeruan, arrain itxurazko itzalekin urdina zipriztinduz.**

Koro Ruiz, Ordiziako Gazte Bulegoko informatzailea:

"Inguruko informazioa bildu eta gazteentzako informazio sarea osatzea da helburua"

Orain arte Barrena Jauregiko beheko solairuan zeukan bere kokagunea Ordiziako Gazteentzako Informazio Bulegoak, baina Domingo Unanue eraikineko obrak direla medio Barrena Jauregiko bigarren solairuko hirugarren gelan dago orain Gazte Bulegoa. Leku aldaketa hau gutxienez urtebetekoa izango da.

Informazio Bulegoak eskaintzen duen zerbitzua udalena den arren, Gipuzkoa eta Euskal Herri mailan Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin batera sare moduko bat osatu da. Horrela, Ordiziako informatzailea den Koro Ruizen esanetan "udal bulegoak herri edota inguruko informazioa biltzea du helburu, ondoren gazteentzako informazio sare hori osatzea". Ordiziako Gazteentzako



Koro Ruiz Gazte Informazio bulegoan

Informazio Bulegoa hama-bost urtetik hogeita hamar urte bitarteko gazteei zuzendurik dago neurri handi batean. Hala ere, Ordiziako informatzailearen arabera, "batzuetan adin hori zabaldu egiten da martxan jartzen diren hainbat programen ondorioz".


"Informazio bulegoetako informatzaileen eginbeharra gazteei informazio desberdina ematea da", Koro Ruizen iritziz. Informazio hau gaine-

ra arloka bereizten da, hala nola, hezkuntza, aisialdia eta lana aipatu daitezke besteak beste. Azken arloaren barnean lan dossierrak azpimarratzen ditu Koro Ruizek, izan ere, "dossier hauei esker gazteek egunkari desberdinetan argitaratzen diren lan eskaintza pribatu nahiz publikoei buruzko informazioa eskuratu dezakete". Informazioa arlo desberdinetan lantzeaz gain, bi motatako informazioa bereizten du Koro Ruiz Ordiziako informatzaileak:

"batetik, informazio puntuala dago, eta bestetik, informazio iraunkorra". Lehenengoaren barnean eguneroko eskaintzak sartuko lirateke, hala nola: ekintzak (jardunaldiak, kontzertuak, jaiak...), lehiaketak (marrazki, musika...), lan eskaintzak (pribatu nahiz publikoak), pertsona bakoitzari emaniko bekak eta talde edota entitateei emaniko diru laguntzak, eta azkenik formazioa (ikastaro zehatzak nahiz orokorrak). Informazio iraunkorrari dagokionez, auzolandegiak edota karnetari buruzko informazioa aipatu daitezke besteak beste.

Karnet desberdinak

Aipaturiko eskaintza edota informazio horien guztien artean Koro Ruizen ustetan, "aipamen berezia merezi du te Informazio Bulegoetan egin daitezkeen txartel edota karnetek, izan ere hainbat abantaila ematen dizkiote erabiltzaileei". Txartel hauek mota desberdinetakoak izan



**MUJKA
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

Arantxa
Lentzeria

Jai Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3
☎ 943 88 76 15 **ORDIZIA**

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Isuses industrialdea - ARAMA
Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**



Gazteentzako Informazio Bulegoaren udako ordutegia:

- **Uztailaren 1etik 23ra eta irailaren 1etik 30era** goizeko 10etatik 1era egongo da irekita bulegoa. Telefono bidez orde, eguerdiko 14ak arte eskatu ahal izango da informazioa. Telefonoa: 943- 80 56 34.
- **Uztailaren 24tik abuztuaren 31ra** itxita egongo da bulegoa.
- **Urritik aurrera** betiko ordutegia izango du bulegoak. Informazio gehiago 943-80 56 34 telefonoan.

daitezke, baina guztietatik erabilienetarikoa bat nazioarteko ikasle txartela da. Karnet hau sei euroren truke eskuratu daiteke eta ordainketa ho-

netaz gain, nortasun agiria eta ikasketako karneta edo zentro homologatuen froga agiria ere beharrezkoak dira. Honetaz gain, nortasun agiria era-

kutsiz lortu daitezkeen honako karnet hauek ere badaude: gazte txartela (sei euro da honen prezioa), irakasle txartela (zortzi euroren truke lortu daiteke) eta aterpekide txartela, azken honen barnean aukera desberdinak daude, hala nola: gazteentzako aterpekide txartela (gazte txartela izanez gero bi euro eta erdi da ordaindu beharrekoa, gazte txartela eduki ezean berriz, bost euro da karnet honen prezioa), helduentzako aterpekide txartela (hamaika euro da honen prezioa), familiakoa (hogeita bi euroren truke lortu daiteke) eta taldeko aterpekide txartela (hamabost euroren truke eskuratu daiteke edota dohainik Eusko Jaurlaritzako elkartearen erroldan daudenentzat).

Internet eta boletin informatiboak

Informatika eta teknologiaren aurrerapenarekin batera informazioa lortzeko baliabide berriak agertu dira, horrela, Koro Ruizen esanetan, "hasiera batean erabiltzen ziren liburuxka informatiboez gain Internet-eko hainbat helbide ere baliagarriak suertatzen dira mota desberdinetako in-

formazioa lortzeko". Helbide garrantzitsuenen artean honako hauek aipa daitezke: www.gazteinformazioa.net eta www.gipuzkoa.net/gazteria. Honetaz gain, Ordiziako Gazteentzako Informazio Bulegoak aukera ematen du posta elektronikoko bidez ere informazioa eskatzeko, horretarako helbidea gazteria@ordizia.org da. Honetaz gain, Koro Ruizen hitzetan, "Internet erabiltzeak ere beste hainbat abantaila dauzka, hala nola, gaur egun txartela egiteko inprimakia Internet bidez lortu daiteke eta ordainketa egin ondoren Euskal Herriko edozein Gazte Bulegoetan eskuratu daiteke karneta".

Etorkizunari begira Ordiziako Informatzaile Koro Ruizek boletin informatiboak aipatzen ditu. Hau da, "oraindik ere eskaintza hau martxan jarri ez bada ere etorkizunaren pertsona bakoitzak bere posta elektronikokoan udaleko informazioa eta informazio orokorra jasotzeko aukera izan dezan lortu nahi dugu eta horretarako boletin informatiboak osatzeko ahalginak egiten ari gara", dio Koro Ruizek.

Uxua Barandiaran Zurutuza

ESTETIKA ZENTROA



JOSUNE

Jai zoriontsuak!

J. M. Barandiaran pl., 3 ORDIZIA
 ☎ 943 882 888 Faxa: 943 886 973

Arkupe

tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoak
 Mantak - Maindlreak - Storeak
 Toailak - Gortinak eta osagaiak

J. M. Barandiaran Plaza
 ☎ 943 88 00 84 ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE

ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
 tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 ORDIZIA

INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
 DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 ORDIZIA

Santa Ana jaiak Ordizian

Uztailak 18, ostirala:

22:15ean: Herri Antzokian, antzerkia, Ordiziako 'Urrup' Taldeak Dario Foen 'Margariek ez dute oroitzapenik' eta 'Ez dago lapurrik onik ez dakarrenik' lanak antzeztuko ditu.

23:00etan: Beti Argi Musika Bandaren eskutik dantzaldia, Plaza Nagusian.

Uztailak 19, ostirala:

'Txikien koadrila' eguna:

10:00etan: XXX. Chapel Gorri Txirrindulari Proba, 2. urteko kadeteen mailan, Gudarien Etorbidean.

12:00etan: Haurren egunaren hasiera adieraziz suziri eta bonben jaurtiketa. Ordu berean udaletxean aginpidea emango zaie haurren Alkate jaun-andreei. Plaza Nagusian Txikien Koadrilak elkartzea.

Ondoren: Buruhandi eta Erraldioen alardea, txistuz, trikitixaz eta Txikien Koadrilaz lagundurik.

16:00etan: Plaza Nagusian, haur jokoak.

17:00etan: Beti-Alai Pilotalekuan, gomazko pilotaz pala-partidak: finalak.

18:00etan: Buruhandi eta Erraldoiak, Ordiziako Txistu-

lariekin batera. Udaletxetik Txikien Koadrilak irtengo dira 'Lagunak' Txarangarekin.

19:00etan: Plaza Nagusian, haur animazioa pottoak, bigantxak,... 'Lagunak' txarangarekin.

20:00etan: Lagunak Txarangarekin Txikien Koadrilen kalejira.

22:30ean: Zezen-Suzkoa, Lagunak Txaranga alaitua, Arboledan.

23:00etan: Haurren mo-zorro dantzaldi handia, 'Lagunak' Txarangarekin, Beti Alai Pilotalekuan.

24:00etan: Danborradako kantineren aurkezpena eta Zugan Taldearekin dantzaldia, Plaza Nagusian.

Uztailak 20, igandea:

10:00etan: Goizeresia Ordiziako Txistulariekin.

10:45ean: Haurren alkate jaun-andreei harrera egingo zaie udaletxean.

11:00etan: Meza Santua. Meza bukatzean Danborrero eta Upeltxo taldeek, Beti Argi Bandaren laguntzaz, Ordiziako Martxa joko dute.

12:00etan: haurren ohiko aurreskua, Plaza nagusian.



16:30ean: Ordizia VII. Torneoaren pilota finalak kimuen eta haurren mailan, Beti Alai Pilotalekuan.

20:00etan: Haurren danborrada.

Uztailak 24, osteguna:

12:00etan: Txupinazoa.

12:15ean: Buruhandi eta Erraldioen Alardea, txistuz, eta trikitixaz lagundurik.

18:00etan: Buruhandi eta Erraldioen irteera Ordiziako Txistulariekin batera.

19:00etan: Plaza Nagusian, 'Barto' komiko-akrobataren ikuskizuna.

21:30ean: Bustuntzatik ohiko Danborradaren irteera.

Ondoren, Alde zaharrean, 'Koxkola' txaranga.

23:30ean: Boxeo Jaialdia.

23:45ean: Kale ikuskizuna, 'Barto' komiko-akrobataren bigarren saioa, Plaza Nagusian.

Uztailak 25, ostirala:

7:30ean: Laguntasuna Errondailaren goizeresia.

9:30ean: Profesionalentzako Nazioarteko LXXX. Villafranca Txirrindulari-Proba.

13:30ean: Laguntasuna Errondailaren kontzertua, Plaza Nagusian.

13:30ean: Txirrindu Proba-aren amaiera.

18:00etan: Altamirako zelaiaren eranskinean, "El Albero" Zenezaleen peñak antolatuta, pikatzaile gabeko nobillada.

18:30ean: Larruzko pilotaz pala-partidak, Beti Alai pilotalekuan.

18:30ean: Alde Zaharrean eta Urdaneta kalean Erraldioen kontzentrazioa, honako konpartsa hauek bertan dire-

SIGLO XX HARATEGIA

Jai zoriontsuak guztioi!

Aurrez prestatutako janariak

Lukusin enparantza, 6

943 08 51 61

ORDIZIA

ALAIA

Taberna Kafetegia

Festa zoriontsuak opa diglizuegu denoi

Urdaneta, 2 ORDIZIA

T A A
M O A
Y P L O

FERNANDO ARANA LEKUONA

Jai zoriontsuak guztioi!

Amerika, 2 ☎ 943 88 89 80

ORDIZIA

Arrandegia

Goen

☎ 943 888 633

Kale Nagusia, 6

ORDIZIA

ITZIAR

☎ 948 467 406

Zumalakarregi, 2

ALTSASU

Poltsikokoa: ☎ 616 435 204

Jai zoriontsuak denoi!

la: Beasain, Tolosa, Legazpia, Urretxu, Zegama eta Ordizia.

19:00etan: 'Koxkola' txaranga.

19:30ean: Alde Zaharrea, kale-antzerkia, 'Trapu Zaharra' Taldearen 'Elvis vete yajii'.

20:00etan: Alde Zaharrea, Mexiko D.F.-ko 'Emperadores' Mariachiak.

21:00etan: Beti Argi bandarekin kalejira.

23:00etan: Mexikoko D.F.-ko 'Emperadores' Mariachia, Domingo Unanue Plazan.

24:00etan: Dantzaldia 'Tekila' orkestrarekin eta Koxkola txarangarekin, Plaza Nagusian.

24:00etan: 'Disco Top' dantzaldi-ikuskizuna, Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 26, larunbata: Santa Ana eguna:

6:00etan: Ohiko goizaldeko danborrada.

Ondoren: Arboledan, txokolate-jana.

9:00etan: Irungo Udal Musika Bandaren kalejira.

11:00etan: Meza Nagusia Udalbatzarra bertan dela Santa Ana Abesbatzarekin.

13:00etan: Irungo Udal Musika-Bandaren kontzertua, Plaza Nagusian.

18:00etan: Profesionalen arteko pilota partidak eskuz, Beti Alai pilotalekuan: 1.Partidua: Galarza V - Laskurain // Martínez de Irujo - Imaz. 2.Partidua: Eugi-Elkoro // Goñi II - Lasa III.

18:00etan: Haur ikuskizuna, Marsel magoa eta Rosa Maria Martinezen txotxongiloak, Barandiaran Plazan.

19:00etan: 'Lagunak' txaranga ibiliko da kalez kale.

19:30ean: Alde Zaharrea, musika animazioa, Chatanga Ben be perkusio taldearekin.

21:00etan: Kalejira Beti Argi Bandarekin.

22:30ean: Son eta bolero gaua, Migdalia Hechavarria abeslaria eta 'Kubason' boskotearekin, Domingo Unanue Plazan.

23:30ean: Joselu Anaiak Taldeak eta 'Lagunak' txaranga, Plaza Nagusian.

23:30ean: 'Disco Top' Dantzaldi-ikuskizuna, Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 27, igandea: Santanazale eta koadrilen eguna:

10:00etan: Ordiziako Txistularien eta trikitixen goizere-sia, herriko hainbat tokitan hasita.

11:00etan: Parrokian Santanazaleen meza.

12:00etan: Santanazaleen ohiko esku-dantza Plaza Nagusian.

13:00etan: Koadrileen irteera.

21:00etan: Kalejira Beti Argi Bandarekin.

23:30ean: 'Indiana' Orkestra, Plaza Nagusian.

23:30ean: Dantzaldi-ikuskizuna 'Disco Top' Beti Alai pilotalekuan.

24:00etan: Camp-dantzaldia, Naima Orkestinarekin, Gargatza Plazan.

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Unanue
GOZOGINTZAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

Nagusia, 17 ☎ 943 88 15 51
J. M. Barandiaran, 9 ☎ 943 88 88 36

Obradorea:
Bizkaia pasealekua, z/g ☎ 943 88 12 65
ORDIZIA

Nafarroa etorbidea, 10
☎ 943 16 22 66
BEASAIN

Jai zoriontsuak guztioi!
ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behe ORDIZIA

UDAKO ORDUTEGIA:
9:00etatik 15:00etara
Abuztuaren 11tik 17ra
oporrengatik itxita

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

txekin

Jai zoriontsuak denoi!



GOITGI
OKINDEGIA
Ogigintzan onenak!

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Etkezaretza z/g ORDIZIA ☎ 943 160501

Gorka Lariz eta Kike Biguri Tetratro antzerki taldeko aktoreak "Bakarrizketekin publikoarekin jolastea bilatzen dugu"

Duela urtebete sortu zen Tetratro taldea. Ordiziako Gorka Lariz, Beasaingo Kike Biguri eta Imanol Aristi eta Tolosako May Gorostiaga aktoreek sortu zuten. 'Queridos reyes magos' lana taularatzen ari dira, bakarrizketak oinarri direla.

Laukote izatetik dator taldearen izena bera ere: tetra (lau) + tro (teatroren amaiera). Gorka Larizek aitortu digunez, antzerki talde baten zat gaularik zailena taldearen izena aukeratzea da. Dena den, gaur egun, hiru dira, Imanol Aristik taldea utzi baitu.

Sarritan gertatzen den bezala, garagardo baten bueltan elkartu ziren lauak eta bertan sortu zen taldea sortzeko ideia. 'Cirugia estreñica' eta 'Queridos reyes magos' ikuskizunak prestatu dituzte. Or-



Kike Biguri eta Gorka Lariz.

diziako Ertaroko azokarako, 'loca historia del rey Ricardo' lana moldatu zuten. Gehiengan, Gorka Lariz izaten da moldaketak egiten dituen.

Stand up edo bakarrizketak egiten dituzte. Azken lan honen helburua, "zerbaitegatik protesta egitea da". Azken aldian bakarrizketa generoa modan jarri dute telebistek. Kike Bigurik probatua du. "Madrilen 'Club de la Comedia'-rako bakarrizketa bat egin nuen. 500 lagun, ka-

merak... bai, urduri jartzen zaitu. Dena den, gauza bat da telebistarako bakarrizketa edo eta stand by comedy, hau da, 'igo eta hitz egin', hau da, publikoarekin jolastea".

Publikoaren arabera, inprobisatu ere egiten dute. Publikoarekin jolasten dute. "Tolosako Amaro azkeneko Antzerki Asteko azkeneko eguneko afarian, esaterako, bakarrizketak egin genituen, baina dena inprobisaturik", zehaztu du Bigurik.

Bertsolariekin parekatzerik ba ote dagoen galdetu diegu: "bertsolariak gaia jarri eta inprobisatu egin behar du. Eskolako ariketa bat adibidez hori izaten da, norberak ahal duen guztia emateko. Ariketa hau egitea oso ona da. Aktore eta artista bezala ariketa ona da bakarrizketa", dio Larizek.

Gaztelaraz antzezten du Tetratrok, jendea euskaraz eskatzen hasi zaienez, euskara itzultzeaz pentsatzen ari dira.


Gustura daude momentuz Tetratroren emaitzarekin. Erantzun ona jasotzen dute doazen lekura doazela. Ordiziako Barrenan Tetratro taldearen lehen saioa ez dute berehalakoan ahaztuko: bi saio egin behar izan zituzten eta bietan ere Barrenako aretoa beteta.

Biguri beasaindarrek aitortu duenez, "jende gehiago joaten da Ordizian antzerkia ikustera, Beasainen baino".

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozei, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



Filipineta, 13 - behea
ORDIZIA
☎ 943 88 49 50

ORDIZIAN ETA BEASAINEN, KALITATERIK ONENeko ERAIKUNTZAK:
ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK, LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK

"Telebistak fama ematen du, antzerkiak lana"

Aspaldi samarretik dabilta Gorka Lariz eta Kike Biguri aktore lanean. Gorka Larizek Madrilen, 'Artes Escenicas' ikasketak bukatu berri ditu. 1998an Ordiziako Urrup antzerki taldean hasi zen eta batez ere antzerkian egin du lanik gehien. Laburmetraietan ere bai, 3 urtean 40 bat egin ditu. "Goenkalen bi kapitulutan atera nintzen. Baina antzerkia dut gogokoago", aitortu digu Larizek. Madrildik Ordiziara itzuli eta Antzerki Tailerren bat jartzea du orain helburu.

Kike Biguri orain dela 4 bat urte antzerkian hasi zen, baina harrezkeroztik serietan eta filmetan aritu da. Orain bakarrikzketekin hasi da. Be-



raz, "orain denetik egiten dut", dio beasaindarrak.

Telebistan atera ezean, aktoreek lanik ez dutela egiten dirudi. "Gerta liteke telebistan atera ez baina urte gutxian antzerkian lan egitea. Espainia mailan, badaude aktore batzuk ez direla batere

ezagunak telebistan, baina antzerki munduan onenak direnak eta urteak daramatzetenak horretan. Aktoreen artean, hauek prestigio handiagoa daukate, telebistakoek baino. 'Al salir de clase' serieko aktoreek adibidez, ez dute ezer ematen. Ez dakizu

aktoreak diren edo kaleko jendea den. Aktore handi horien antzerkia ikustera joanez gero, berriz, barrenak mugitzen dira", zehaztu du Gorka Larizek.

Kike Bigurik gaineratu duenez, "mundu honetan bi arlo bereiztu behar dira: lana eta fama. Fama serietatik eta filmetatik etortzen da. Lana, berriz, urte osoan egiten dena da. Onena, noski, lana da eta antzerkia lana da guzretzat. Antzerkitik fama etorriz gero, oso ondo".

Madrilen modan

Madrilen euskal aktoreak modan daude, "gainera izen ona daukagu", dio Bigurik. Gorka Larizi harrigarria iruditzen zaio, "nola ez dagoen eskola akademikorik Euskal Herrian, hemen dagoen harrobia egonda. Aktore gehienak euskaldunak gara".

borja de la cuesta *Jai zoriontsuak denoi!*

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak Oihalak

Plaza Nagusia, 4 **ORDIZIA**

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea

Larraitz bidea GAINZA ☎ 943 88 98 48

Umeen arropa denda

FESTETAN ONDO IBILI
ETA OPORRAK ONDO PASA!

☎ 943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA

Artesania Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA

GUKlan

*Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa*

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - **ORDIZIA**

Maratoi arrakastatsua

Aizkorriko Lagunen Egunaren barnean lehiatu zen II. Zegama-Aizkorri mendi maratokia oso arrakastatsua izan zen.

Gizonezkoetan, iaz Joan Martin Tolosak lortutako 4 ordu eta 14 minututako errekorra hautsi zuen Garcia Herreros madrildarrak, frogara, 4 ordu, 8 minutu eta 44 segundotan burutu.

Emakumezkoetan, berriz, Esther Hernandez bartzelonarrak irabazi zuen, honek ere iazko errekorra hautsi zuen. 5 ordu, 8 minutu eta 52 segundotan frogara burutu zuen. Iazko irabazleak, Rosa Lasagabasterrek, 6 ordu 5 minutu eta 7 segundo behar izan zituen.

Giro aparta izan zen uztailaren 6an Zegaman; eguraldiak bigarren urtez lagundu zuen eta gainerakoa korrikalari eta ikusleek jarri zuten. Goizeko 6etan puntuan abiatu zen plazatik lehen irteera. Talde hau Aizkorriko puntaraino igo, eta Santu Spiritun elkartu zen, bertara 7:30etan abiatutako taldearekin; Santu Spiritun, Iñaki Arantzadik emandako meza entzun ondoren, Zegamako Udalak jarritako hamaiketako dastatuz, maratokia korritzen ari ziren lehen korrikalariak ikusi ahal izan zituzten. Ondoren, nahi zuenak bertan egun pasa eta nahi zuenak, helmugarako bidea hartu zuen. Lehen korrikalaria Zegaman zegoen 13:08:44 segundotarako.



Ondoren sari banaketa egin zen eta lagunarteko bazkarian 200 lagunetik gora parte hartu zuten. Esan errekor ikaragarria jarri zuela gaur egun, mendi maratobietan Estatuko txapeldun den Fernando Garcia Herreros eta baita Esther Hernandezek ere. Bestalde frogan parte hartutako korrikalariak frogara amaitu gero behin eta berriz aipatzen zuten ikusleek eskainitako animu, oihu eta berotasuna.

Esan, antolakuntza lanetan 200 lagunetik gora ibili zela eta elkarlanaren emaitza lasterketaren hasieratik bukaeraino ikusi zela uztailaren 6an Zegaman.

Arratsaldeko 6etan haurrentzat erraldoi eta buruhandiak izan ziren kaleetan zehar. Bestalde, Kultur Etxean Maria Luisa Gorrotxategik pintura erakusketa ipini zuen eta Linue Zegama kooperatibak ere bere lanak ikusgai izan zituen.

Hona hemen lehen hiru sailkatuak:

Jubilatuen eguna

Joan den igandean Zegaman Jubilatuen Eguna ospatu zen, eguna alaitzeko herriko txistularien kalejira izan zen goizeko 11etan eta eguerdian Meza Nagusia entzun zuen nahi zuenak, Orkatz abesbatzaren partaidetzarekin eta herriko dantzariak arku dotorea egin zuten meza sarrera eta irteeran eta kiroldegia sarreran. 14:00etan, kiroldegian bazkaria eskaini zuten Udalak. Bazkal ondoren, sari ugari zozketa egin zen bertaratuaren artean eta bertsotan Joxe Agirre eta Txomin Garmendia aritu ziren.

Antzerkia uztailaren 24an

Kultur Etxeak urteroko udako ikuskizuna aurtengorako ere prestatu ditu. Lehena datorren uztailaren 24an izango dugu "Arrautza delikatuak" antzezlan Hika Teatroaren eskutik Udal arkupeetan izango dugu.

Bestalde, uztailaren 29an, "Mugak Zabalduz" taldearen folk-jazz kontzertua izango dugu herriko plazan.

Udal batzorde informatzaileak

Udalaren barne funtzionamendua batzorde informatzaile ezberdinetan antolatu da eta hauek orain arte bezala irekiak izango dira. Hona hemen edozein herritarrek parte har dezakeen batzorde informatzaileen izenak eta, hauetako batean parte hartzea nahi baduzu Udaletxean eman behar duzu izena: Gizarte Ongizatea/ Hirigintza, Ingurumena eta Zerbitzuak/ Hezikuntza eta Gizarte Informazioa/ Kirolak/ Turismo eta baliabideak/ Mendi eta Auzoak/ Kultura, Euskara eta Gazteria.

Tobera musika eskolaren zozketa

Zegama, Segura eta Zeraingo Tobera Musika Eskolak urtero ikasturte amaiera aldera atera ohi duen errifaren zozketa aurtetik ekainaren 27an, ostirala, egin zen. Zenbaki saritua 0695a izan zen. Zegaman bertan geratu da aurtetik saria, eta Toberako ikasle baten esku gainera. Mikel Berasategik bi pertsonentzako asteburu bateko egonaldia irabazi du Santillana de Mar herri dotoreko nekazal turismo etxe batean Eroski Bidaia eskutik, eta dagoeneko poltsikoan ditu bidaiarekin batera saria osatzen zuten 300 euroak. Mikel gustura baino gusturago omen dago saria berak ekarria delakoan, eta horrelakoetan zorte gehiegirik izan ohi ez dutela dioten gurusoak ere pozik omen daude espero ez zuten sariarekin. Badirudi aspaldi samar Cabarcenora joateko nahiarekin zebiltzala Maria Luisa eta Miguel, eta beraz, aldaketaren bat egiteko aukera ere egon omen liteke. Toberatik zorianak ematen dizkiete saridunei, eta errifak erosten lagundu duten guztiei euren eskerrona adierazi nahi diete. Babesleei ere -Eroski Bidaia agentziari eta Joxe Telleria aseguru etxeari, alegia- eskerrik beroena helarazi nahi diete ohar honen bidez.

Gizonezkoak: 1. Fernando Garcia Herreros 4 ordu 8' 44", 2. Juan Martin Tolosa 4 ordu 10' 34" eta 3. Julen Aranguela 4 ordu 15' 27".

Emakumezkoak: 1. Esther Hernandez 5 ordu 8' 52", 2. Isa Casado 5 ordu 29' 41" eta 3. Yolanda Santiuste 5 ordu 36' 36".

Edurne Albizu



Jai nagusien egitaraua

Dagoeneko prestatua du udaleko kultura sailak aurtengo herriko jai nagusietarako egitaraua. Abuztuaren 14tik 17ra lau egunetan bilduko dira ekitaldi guztiak. Jai giroa San Lorentzoeekin hasiko da, ordea, Ugarana Goikoa zozkeran.

San Lorentzo festak

Abuztuak 8, ostirala: Mus txapelketa, gaueko 9etan.

Abuztuak 9, larunbata: Au-

zo afaria Korta jatetxean, gaueko 9etan. Izena aurretik ematea komeni da jatetxean bertan. Afal ondoren musika izango da, eta urtero bezala auzoko helduenari oroigarria emango zaio.

Abuztuak 10, igandea: Eguerdiko 12etan meza nagusia San Lorentzoren ermitan. Ondoren hamaiketako inguratzaren diren guztientzat. Bazkal aurretik ahari jokoa. Eguerdiko 2etan VI. gazte bazkaria (izena aurrez eman).

Alegin Madalenak

Datorren uztailaren 22an, asteartea, ospatuko dute alegiarrek auzoko zaindariaren eguna. Eguerdiko meza nagusiaren ondoren herriko Goruntz taldeak dantza saioa eskainiko du. Arratsaldean haurrentzat jolasak izango dira, gaztelu puzgarriak, motor pista, opariak, e.a. Gauean Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

Bestalde, asteburu honetan Aztiriko jaiak direla gogoratu.

Berria-ren aldeko diru-bilketa

Emaizta oso onak lortu dira Berria egunkariaren alde martxan jarri zen kanpainan. Familia bakoitzeko 50 euroko akzioa erostea zen xedea, eta enpresa nahiz tabernek 300 eurokoa. 62 akzio saldu dira guztira, denen artean 6.950 euro bilduz (Gabirian 2.579 euro aportatzea aurreikusten zen, biztanle euskaldun proportzioan). Oraindik ere nahi lukeen edonork eros ditzake laguntza bonoak Iñaki Muruari deituta (943 88 63 55); herriko festetan ere jarriko dira saltzen.

Musikan sari bat

Oroitz Maiz akordeoilariak joan den uztailaren 13an musika lehiaketa bat irabazi zuen Sitges-en (Katalunia). Instrumentu desberdinak aurkeztu ziren lehiara, eta Oroitzek soinuarekin egindako lanari eman zioten lehen saria. Aste honetan Andorrako nazioarteko akordeoi lehiaketan parte hartu du.

Aimar Maiz

Andra Mari jaiak

Abuztuak 14, osteguna:

Goizez eta arratsaldez herriko txistularien biribilketa baserriz baserri.

16:30etan: suziriak eta kanpaiak festen hasiera iragarri.

17:00etan: kuadrilen arteko futbol partidak.

20:00etan: Bertsolari jaialdia parrokiako antzokian. Igor Elortza, Sebastian Liza-so, Mikel Mendizabal, Sus-trai Colina, Iñaki Apalategi eta Iñigo Izagirre.

Gauean: Dantzaldia Nekin taldearekin.

Abuztuak 15, ostirala, Andra Mari eguna

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: XII. Ormaiztegitik Gabiriarako txirrindu igotera herrikoia.

18:00etan: Pilota partidak. Herriko infantilak eta afizionatuak: Agirre - Biteri (Antzuola), Irazustabarrena - Oiarbide (Gabiria-Segura).

Ondoren: Herri kirolak herriko gazte taldeen artean.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak (izena 8ak arte eman ahal izango da).

Arratsalde eta gauean: Tri-kizio taldearekin dantzaldia eta Mozorro gaua.

Goizeko 5:00etan: baratzuri zopa Osinalde elkarte.

Abuztuak 16, larunbata, San Roke eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Goruntz dantza taldearen saioa.

16:00etatik aurrera: umeentzako jolas-parke erraldoia.

17:30etan: ume jolasak eta mozorro dantza.

19:00etan: bola eta toka lehiaketan bigarren jardunaldia.

19:30etan: sagardo eta txistor dastaketa.

21:30etan: koadrilen arteko afaria Ostatu jatetxean (txartelak hilaren 13a baino lehen erosi behar dira).

Gauean: Trikizio taldearekin dantzaldia.

1:30-2:00etan: Ezusteko galanta.

Goizeko 5:00etan: baratzuri zopa Erbie elkarte.

Abuztuak 17, igandea, San Roke Txiki eguna:

11:00etan: Meza nagusia, herriko hildakoen alde.

Ondoren: XXII. Tiragoma txapelketa, bola eta toka tiraketak herritarrentzat (izen ematea 13etan itxiko da).

18:00etan: ardo beltz banaketa herriko Zagiardotik antzinako ohituran.

Arratsalde eta gauean: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

23:00etan: Su-festa.

Abuztuak 18, astelehena

17.00etan: herria txukuntzea. Iluntzean, lanean aritu direnentzat afari-merienda.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57





Santa Ana jaiak

Asteburu honetan bertan gaztetxoenen txanda izango da. 2003ko Santa Ana jaiak hasiera eman eta beti bezala, helduen jaiekin, koadrila egunarekin emango zaie amaiera uztailearen 27an. Tartean denetik izango da: danborradak, txirrindulari proba, boxeoa, zezenak, musika... 10 eta 11 orrialdeetan duzu egitaraua. Lerro hauen bidez guztioi ere festak ondo pasa ditzazuela opa besterik ez eta oporren bueltan hemen izango gara.

Ohorezko kofrade berriak

Sabina Amondarain (60 urte jarraian asteazkeneroko perirra saltzera etorritako baserri-tarra), Josune Bereziartu (munduko emakume eskalatazaille onena), Nikolas Remiro (47 urte artzain Urbanen), Luis Irizar ("Euskal Herriko

sukaldaritza berria" mugimenduaren fundatzailea) eta Bernardo Alberro (musikagilea eta 60 urtez Oncen lanean aritua) dira Idiazabal Gazta Kofradian sartutako azken ohorezko kofradeak. Guztiak ere Idiazabal Gaztaren alde egindako lana edota bizitza osoan zehar egindako lanarengatik izan dira hautatuak. Kofradia orain 14 urte eratu zen eta harrezkero, besteak beste, gaztaren kalitatea hobetu asmoz bi lehiaketa nagusi antolatzen ditu urtero, euskal jaien barruan egiten dena eta Ordizia Txapeldun ekitaldia.

Uztailearen 6an jai giroan burutu zen izendapena eta esan guztira 16 kofradia izan zirela bertan ordezkatuak izan zirenak.

61.000 boleto salduta

Errekor berria ezarri dute berriro ere San Jose zahar etxearen alde antolatzen den San Fermin zozketan boletoak erosi dituzten guztiek. Iaz 58.000 izan baziren aurtengoan 3.000 gehiago izan dira eta honek irabaziak ere areagotzea ekarri du berekin. Honekin 20.740 euro jaso dira eta %10a zahar etxekoentzat izango da. Gainontzeko ia guztia saritan banatuko da. Zozketak herrian duen harrera ikusita ziur antolaketa lanetan jarraituko dutela datorrenean ere Txindoki Tabernakoei.

1.000 euroko saria 12.701 zenbakidun boletoa duenak jasoko du, 600ekoa 30.995 zenbakidunak eta 300ekoa 43.973 eta 9.298 zenbakidunek. Saridun zenbaki guztiak Etxezarreta Kaleko Txindoki Tabernan bertan daude ikusgai.

Tximista txapeldun

Hirugarrenez Tximista Sagardotegiak Lagunarteko Futbol Txapelketako garailea izan da. Finalean Urbitarte Sagardotegia izan zuen aurrez aurre eta 2-1eko emaitzaz nagusitu zen. Josuk egindako gol bati esker lehen zatian Urbitartekoak aurreratu ziren baina bigarrenean Patxi eta Raulek sartutako golak erabaki zuten neurketa.

Finala jokatu aurretik 3-4. postuak erabakitzeko neurketa jokatu zen eta bertan, penalti jaurtiketen ondoren Badago iazko txapeldunari gailendu zitzaion, Bustunmirari. Ondoren festa giroa izan zen nagusi herrian, bazkarian sari banaketa egin ondoren. Datorrena 25.ena izango da, zilarrezko ezteiak, eta antolatzaileek herritar guztiei aurretik deia luzatu die ahal den talde guztiek parte har dezaten.

Batzordeburuen hautaketa

Legegintza berriko lehen plenoan erabaki zen zinegotzi bakoitza zein batzordeko buru izango den. Joxe Arizmendi (EAJ-EA) hirigintza eta ingurugiroa, Jose Luis Ormazabal (EAJ-EA) zerbitzuak, Manuel Iturrioz (EAJ-EA) ohiko perriak eta sustapen eta garapena, Pello Otegi (EAJ-EA) euskara, gazteria eta hezkutza, Agurtzane Antoñana (EAJ-EA) kultura, Jose Miguel Santamaria (EAJ-EA) gizarte ongizatea eta Jesus Mari Lariz (EAJ-EA) kirolak, jaiak eta feria bereziak.

Besteak beste ohiko plenoak hilero egitea ere erabaki zen, hileko azken ostegunean. Ordiziak parte hartzen duen erakundeetan ordezkariak zeintzuk izango diren ere hautatu zen. Honela: Alejandra Iturrioz (alkatea) Ur-partzuergoa, Enirio-Aralar Mankomunitatea (lehendakaria), Goierri Beheko Industrialdea, Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa, Ingenieria Batzorde Errektorea, Ikaslan, Goieki, Goitur, Eukal Fondoa eta Eudel-ez arduratuko da. Era berean, Alejandra Iturrioz eta Jesus Mari Larizen liberazio osoak onartu ziren.

OBRA PROIEKTUAK

Etxe berriak eraikitzeko
Birmoldaketak
Aktibitateak
Hirigintza

LDA arkitektura 649 95 94 14
GOIERI ETA TOLOSALDEAN

ARRIETA

JATE TXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



Ordiziako Tabernarien partetik

*Jai zoriontsuak
guztioi!*

**ETXETXO
TABERNA**



**OIANGU
TABERNA**
♦ ♦ ♦



HERRIKOA TABERNA



**MIAMI
kafetegia**



Martínez
Jaietxea



ALDASORO

Taberna - Jaietxea

**OLANO
TABERNA**





Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:

Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42

LAZKAO

toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

FOTO ORDIZIA

ARGAZKI DENDA EXPRESS COLOR

DOMINGO UNANUE, 1
ORDIZIA

TEL.: 943 889 325
FAXA: 943 085 035

ERREBELATUA ORDUBETEAN DIGITALA ETA ANALOGIKOA



BIDEO DIGITALA



ARGAZKI DIGITALA



IRRATIAK-DISKMANAK

SONY BANATZAILE OFIZIALA

Udal ordezkariak legealdi berriaren hasieran

Udal ordezkari berriak aukeratzeko egin zen bilkura bereziaren ondoren Iñaki Maiora dugu berriz ere herriko alkate datozen lau urteetarako. Iñaki Maiora OHT hautagai zerrendak gehiengo nagusia lortu ondoren izendatua izan da berriz ere alkate, berarekin batera OHTko zazpi zinegotzi eta EAJ-EA ordezkari batekin osatuko dute datozen lau urteetarako udal ordezkariak. Jakin izan dugunez OHT taldekoek Argitzen plataformako ordezkari beraiekin udalean elkarlanean aritzeko proposamena mahai gainean jarri izan die, lortutako botoen arabera bi ordezkari izateko aukerarekin eta legez kanpo egonik, gero bilkuretan boto-

rik gabe baina ahotsa izateko aukerarekin. Argitzenekoek aipatu proposamena bertan behera uztea erabaki zuten, ondorioz udal ordezkariak OHT zortzi eta EAJ-EA ordezkari batekin osatua geratu zen.

Beraz datozen lau urteetan udalean arituko diren 9 ordezkariak Iñaki Maiora, Xabier Ezkurdia, Gurutze Arrieta, Joxe Murua, Maria Martinez, Erkuden Murua, Rosa Sagarna, Bernardo Osinalde eta Jabier Mugurutzak izango dira.

Jadanik batzordeak abian jartzeko hastapenean daude, lehen ekimenei ilusioz eta "itxaropenez beterik heldu

izan dieten honetan herriaren alde elkarlanean oinarrituriko proiektu baten alde lan egingo dutela jakitera eman digute; betidanik beraiekin asmoa izan den bezala bake bideak eta Ormaiztegi etorkizunean herri garatu bat izatea bermatuko duen proiektu bideraketarekin herritar guztion ongizatearen alde lanean" sailatuko dira. Aurrerantzean beraiekin izango gara ordezkari bakoitzak herriaren alde dituen proposamen eta asmoen berri gertuagotik eza-gutzeko asmoz.

Tejeri auzokoaren urteko bilkura

Aurtengoan 6. aldiz jarraian Tejeri auzoan bizi izandakoek beraiekin urteko bilkura eguna ospatuko dute, irailaren 20an. Bazkaria Gabiriako Korta jantxan izango da.

Bertan parte hartu nahi dutenek izena ahalik eta azkarren ematea eskatzen da. Izen ematea Euskadiko Kutzako 3035 0006 82 0061006049

kontu korrentean 30 euroko dirusarreraren bitartez egin daiteke. Diru sarrera eginda, koan norberaren izen-abizenak jarri behar dira.

Odolemaile elkartearen eskertza

Herriko mediku kontsultorioan izan zen azken odol ateraketan 50 odol oteratze egin ziren. Horietako bat berria izan zen eta bi analisi ere egin ziren.

Oraingo odol ateratzean ere Elozegi ardotezia, Murua harategia, Deba harategia eta Iñaki Autoserbitzua, Euskadiko Kutxa, Lazti garraioak, Otordu, Medikuntza kontsultorioa eta udala izan zituzten laguntzaileak. Beraz aipaturiko guztiei elkartearen izenean eskerrik beroenak bidaltzen dizkie, baita odol ateratzean parte hartu zuten odolemaile guztiei, bai herritar eta baita Gabiria eta Ezkio-Itsasotik hurbildutakoei ere.

Aitziber Murua

VI. Gazte Festak martxan dira

Arkakuxoaren jaitsierarekin hasi dira aurtengoan ere VI. Gazte Festak. Gaur, ostirala, uztailaren 18an kafe tertulia izango da Zubi Buru elkartearen. Ana Cachafeirok 'Patriarkagoa, emakumearen sexualitate eta amatasuna' gaiaren inguruan hitz egingo du. Ondoren, sasi pilotari txapelke-

taren finala izango da herriko plazan. Honekin batera, sukaldari txapelketan parte hartu behar dutenak entsalada eta tortila goxo-goxoak prestatzen hasi beharko dira. Gaueko 11,30ak aldera '4 Itzal' taldearen kontzertua hasiko da.

Baina, jaiak ez dira gaur amaitzen, hona hemen larunbateko, uztailaren 19ko, egitaraua:

17:00: Sorpresa ugari herriko plazan. **Ondoren** guztiok moztarotzera!

21:30etan: Asterix eta Obelixekin afaria, menua entsalada eta oilaskoa. Posterrako eda-be magikoa!

Oharra: uztailaren 19an Zaldibiako plazan azoka egiteko asmoa zen, baina zenbait gora-behera direla eta atzeratu egin behar izan da.

Liburutegiko txartela berri behar da

Zaldibiako Udal liburutegia berrantolakuntza lanak direla eta mailegu zerbitzura irakurle guztien txartelak berri behar dira. Txartela berritzeagatik ez da ordaindu behar, eta mailegu zerbitzua ere, orain arte bezala, doan izango da. Zerbitzu honen bidez liburuak, aldizkariak, musika edota bideoak etxera eraman nahi badituzue eraman argazki bat eta egin txartel berria. Gogoratu abuztuaren liburutegia itxita egongo dela.

Edurne Soraluze

Ospitala mojarik gabe

116 urteko lanaren ondoren, Segurako III. adinekoen San Jose egoitza aste honetan utzi dute karitateko mojek. Gaur egun lau moja besterik ez ziren geratzen eta kongregazioak beste destino bat eman die. Pasa den uztailaren 13an, komentuko meza nagusian omenalditxoak jaso zuten. Aurreskua dantzatu zitzaizen eta oroigarri bana eman zien udalak. Aurrerantzean, 'Eulen' azpikontratak egingo du euren lana. Gainerantzean, zuzendaritzak lehen bezala jarraituko du.

Udal batzordeak

EA-EAJ koalizioak eta Harresi herri plataforma ez dira batzorde banaketarako adostasunerira iritsi. Guztiak, koalizioaren esku geratu dira. Hauek, irekiak izango dira eta bertan parte hartzeko, hilaen amaiera arte dago izena emateko epea. Hona batzordeak eta batzordeburuak:

Kontu ogasuna eta Hirigintza: Mikel Areizaga.

Kultura, kirola, gaztedia eta Hezkuntza eta euskara, Joxe Mari Izagirre.

Garapen ekonomikoa: Mañu Errezola.

Zerbitzuak eta Ingurumena: Jon Agirre.

Ongizatea: Karmen Ariztimuño.

Kirol eskolarraren amaiera

Kirol aniztasunean oinarrituz, lehiatze hutsaren gainetik, heztea eta jolas eginez gozatzeko helburu izanik, 3. mailatik 6. maila arteko 51 ikasle, 14 kirol ezberdinetan aritu dira asteburuetan, ikasturtean zehar, Xabier Intxaustiren gi-

Europako sega txapelketa irailarein Setik 7ra

Alemania, Suitza, Eslovenia, Hego Tirol, Austria eta Euskal Herria

Bi urtez behin ospatzen den Nazioarteko Sega Txapelketaren 3. edizioa madurako zelaletan jokatu da. Almitza sega elkartaren gidaritzapean herritar, elkarre eta taldez osatutako 10 lan talde ari dira antolaketa lanetan. Batzorde bakoitzeko buruak asteazkeneko elkartzen ari dira koordinazio lanetarako.

Egitaraua:

Ostirala, 5: ongi etorria:

Arratsaldean, harrera iristen direnei.

22:00etan, plazan: ongi etorri hitzaldia, taldeen aurkezpena eta dantzaldia.

Larunbata, 6: zozketa:

9:00etan: irtenaldi turistikoa.

15:00etan: zelai probaketa. Epaileen bilera.

18:00etan: partehartzaileen desfilea.

19:00etan: zelai sailen zozketa.

20:30etan: Perurenaren marka saialdia.

21:00etan: herri afaria.

23:00etan: folklore jaialdia.

00:30etan: dantzaldia.

daritzapean. Entrenatzaile eta laguntzaile lanetan aritu direnak eskertu nahi ditu Xabierrek, besteak beste, Maitane Muñoa, Anaitz Goia, Javier Arnaez, Jon Korta, Inge Olani, Joakin Sarasola, Txetxu Ormazabal eta Xabier Imaz.

Labur-labur

● **Aizkorri mendi maratonia,** Zeles eta Arkaitz Sodupe, Felipe Rodriguez eta Aitzol Telleria herritarrek hasi eta amaitu zuten.



Joxe Mari, bere seme Beñat eta osaba Jexux Mari zuhatza amaitzen.

Sega txapelketarako zuhatza

Iñaki, Joxe Mari eta Jexux Mari osaba-ilebek, garai batean ohikoa baina gaur arrotza egiten zaigun zuhatza prestatu dute Madalenako biribilgunean euren baserri ondoan. Irailaren 6ko desfilean, idi parez osatutako belar gurdian aterako dute. Bitartean, sega txapelketaren lekuko modura dago herri sarreran. Jexux Mari Intxausti, osabak, dioe-

nez, orain 30 urte egin zuen azken zuhatza. Baserriko ganbara belar igarrez eta garoz beteta, zortzi zuhatz ere ezagutu zituen baserri aurrean Jexux Mari. Gaur egun, fardoak eta belar bolak betetzen dute funtzio hori.

5 metro inguruko zuhatzila lurrean sartu, euskarri modura hiru trike jarri eta hezetasunaren kontra azpi guztia zarbaz es-talita, zuhatzilaren buelta ondo betez, ondoren aldamenak betetzea da sekretua Jexux Mariren esanetan.

Igandea, 7: sega txapelketa

9:00etan: Meza.

11:00etan: Nazioarteko sega txapelketaren hasiera.

11:30etan, emakumezkoak,

14:00etan atsedenaldea eta **16:00etan** gizonezkoak.

19:30etan: sari banaketa.

22:00etan: amaiera jaialdia. Dantzaldia.

● **Atsedan laster zabalik.** Aloña Iparragirre izango da jubilatuen elkarteko taberna eramango duena. Prestaketa lanak amaitu orduko zabalduko da.

● **'Egunkaria' ren aldeko batzordea** irailean bilduko da, aurrerantzean egin beharreko ekintzak zehazteko.

● **Hegazti azoka.** Irailaren 28an burutuko den azoka antolatzeke opor aurretik egin-gu du bilera deialdia udalak.

● **Urbiako eguna.** Uztailaren 31n, San Inazio egunez, partzoneriko udalek antolatuta ospatuko da Urbiako festa. Mezaren ondoren, mokadutxoak, herri kirolak eta trikitaliak izango dira.

● **Udal liburutegi berria,** oporrak ondoren inauguratzeko asmoa du udalak.

● **Odol emanaldia.** Abuztuaren 23an, 17:00etatik aurrera osasun etxean.

Joseba Telleria



Irristaketa da aurtengo joera

Aurtengo Udako Kirol kanpaina ere badoa aurrera eta erdibidea gauditua den honetan balantze koxkor bat egiteko garaia da.

Partaidetza orokorrari dagokionez esan behar da, iazko jardunaldietan 300 partaidetara iristeko oso gutxi falta izan bazen ere, aurtengoan kopuru hori gauditua egin dela, hain zuzen ere 323 izan baitira izen eman dutenak jarduera desberdinetarako.

Azken urte hauetako joerarekin jarraituz, irristaketa da kopururik handiena erakartzen duen jarduera, hain zuzen ere 102 partaidea izan dira. Hauen artean aipagarria da 11 helduz osatutako talde bat ere sortu dela denak ere kirol hau ikasteko ikastaroan.

Kirol honen ondoren, igeriketa eta aerobik-txiki ikastaroak izan dira arrakastatsuenak, bien artean 120tik gorako partaidetza lortuz.

San Migeletako pilota txapelketa

Opor hauen ondoren hasiko dira San Migel txapelketako partiduak. Aurten ere partaidetza handia izango da. Oraindik zerrendak zehazteko badira ere, 100 lazkaotarrrek hartuko dute parte. Maila ezberdinak izango dira denak ere urteen arabera sailkatuz. Irailaren hasierarekin batera hasiko da txapelketa eta finalak San Migeletako utziko dira. Senior mailan bikote dezentek hartuko dute parte, federatuak kontatu gabe. Federatuak ere beraien ligaxka izango dute.

Deialdia errejionaleko talderako

Aste honetan hasi dira lehen entrenamenduak Arizti-Haundi futbol zelaian. Beraz, hasteko asmoa dutenei deialdia luzatze zaie. Interesa duenak bertara azal dadila, kirol arroparekin.

Aitor Tello

Maizpiden ekintza desberdin ugari

Orain arte egin diren ekitaldi gehienak arrakastatsuak izan direla ez dago inongo zalantzarik, bestela Lazkaoko plazatik buelta bat egitea nahikoa zen ohartarazteko. Baina hemen ez da dena bukatzen. Maizpide euskaltegiak uztailaren 23rako Drindots taldea jarri du hilabete honetako azken ekitaldirako.

Abuztua berriz beste ekitaldi batzuekin beterik dator baina oraingo honetan Maizpide barruan izango dira, gaueko 9etan

Abuztuaren 6an Aitor Marzilla eta Txispi magoak izango dira Maizpideko zinema-aretoan.

Abuztuaren 12an, Koldo Amestoy ipuin kontalaria.

Abuztuaren 20an, bertso-trama. Bertsolariak: Igor Elortza, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio eta Jon Maia. Tramagilea: Josu Goikoetxea.

Abuztuaren 26an, 'Kontu kontari kantu kantari' Doro Zorabarekin.

Abuztuaren 28, Joseba Iparragirre eta Ander S. Jose trikitaliak Maizpideko jangelan.



Garagardo festa: helburua beterik

Pasa den aste bukaeran hainbat eta hainbat garagardo ezberdin dastatzeko aukera izan zen Lazkaoko enparantzan. Ohizkoa izaten den bezala ostegunen hasi eta iganderarte ospatu zen. Garagardo festa, honek helburu bat zuen: bertan jasotako diruak Euskal Herriko itzuliko etapa bat Lazkaon hasteko izango du ardatz. Aste bukaera honetako jendetza ikusiz dagoeneko baieztatu daiteke egun hori Lazkaok bizi izango duela.



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO



Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elozegi, 16 LAZKAO

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



Andra Mari jaietako egitaraua

Abuztuak 13, asteazkena:

20:00etan: Ohizko gibel ja-tea Liztormendi elkartean.

Abuztuak 14, osteguna:

Andra Mari bezpera:

Umeen eguna:

11:00etan: Eskalada eta Ti-rolina eliza atzean.

16:30ean: Potxin eta Patxin pailazoak herriko plazan. On-doren merienda eta bu-ruhaundiak.

20:00etan: Pregoia, suziariak eta kanpai bueltakoak.

Ondoren: Sagardo dastatzea eta burruntzian erretako ze-kor pintxoak (egun osoan ze-har zekorra erretzen harituko dira herriko plazan).

Ondoren: Erromeria Enetz taldearekin. Mozorro gaua.

Abuztuak 15, ostirala:

Andra Mari eguna:

9:00etan: Txistularien goiz

Kultur elkartrukea

Zeraingo herria eta Frantziako, Dordogne eta Bretainako herri batzuk, azken urteetan elkarrekin garatzen joan diren proiektu bati jarraituz, uztailaren 7tik 12ra Zerainean izan da Frantziako haur eta gazte talde bat.

Elkartruke kulturalako harreman hauetan, bereziki, umeak eta gaztetxoak dira partaide, eta egonaldi hauetan herriko gaz-teekin batera hainbat ekintza egiten dituzte, harreman hauek hizkuntza oztupo badute ere ondo pasatzea lortzen dute eta es-perientzia polita izaten da.

Uda hasieran frantziarrak Zerainean izan badira, uda amaie-ran, hau da, irailaren hasieran zeraindarrak Dordognan izango dira aste beteko egonaldian.

Urtekaria

Ohiko dugun bezala, aurtan ere festak iristearekin batera, abuztuaren 14 salgai izango dugu Urtekaria, bertan kontatuko dira urteko hainbat pasadizo, lehengo eta oraingo kontuak.

Mari Flor Mendizabal

eresia etxez etxe.

11:00etan: Meza Nagusia.

11:00etan: Andramari bola txapelketaren hasera.

12:00etan: Txakolin dasta-tzea.

19:00etan: Herri kirolak. Iparraldeko eta Hegoaldeko herri kirolen erakusketa: tron-tza, txinga-erute, artaburuak, zorroa, jungura jokoa, lasto altxari, sokatira, orga jokoa.

Ondoren: Erromeria Leire eta Itxaso trikitilariekin.

00:00etan: Asto karrera.

Ondoren: Erromeria Leire eta Itxaso trikitilariekin.

Abuztuak 16, larunbata:

San Roke eguna:

8:00etan: Txistularien goiz eresia etxez etxe.

11:00etan: San Roke bola txapelketaren hasera.

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Zeraingo igoera txirrinduz.

20:30ean: Herri afaria Lizaso eta Lazkano bertsolariekin.

Ondoren: Erromeria Irtats taldearekin

Abuztuak 17, igandea:

15:00etan: Herria txukuntzea.

Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei



ZERAINGO UDALA

Abuztuko egun horiek oso apro-po-sak izan daitezke bertako txoko, ibil-bide eta altxor historiko-artistikoak ezagutu ahal izateko.

Zatoz, gonbidaturik zaude.



URDANETA KHAF harategia

Kalitate hobeak!

Prezio berean!



*Jai zoriontsuak
pasa guztiok!*

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA

Kalitateko
Haragi
Fidagarria



GOIHERRI, S. L.
Iturgintza

Urdaneta 24
☎ 943 88 11 57
ORDIZIA

*Festa zoriontsuak
opa dizkizuegu denoi!*

Sanitarioen instalazioa
Iturriak
Bainuko altzariak
Berogailu eta Gasa





Lan bertikalak S.L.

Kanaloia

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Agurne Sanchez Munduko txapeldun euskal selekzioarekin

Agurne Sanchez Sardinian edo Cerdeñan izan zen euskal selekzioarekin ekainaren 17tik 30era bitarte, eta munduko belar artifizialeko areto futbol txapeldun geratu ziren. Hona hemen esperientzia horri buruzko xehetasun gehiago.

Munduko txapeldunak... Zer sentitzen da?

Zer sentitzen den? Ba, izugarriko emozioa. Ezusteko galanta izan zen, ez genuen inondik inora espero eta hortik txapelketa irabaztera salto handia dago. Gure asmoa esperientzia berri bat izatea zen, elkarbizitzea, kultura ezberdinak ezagutzea eta batik bat hango areto futbola nolakoa den ikustea.

Talde asko al zineten?

Bi txapelketa izan ziren. Lehenengoa ez zen hain garrantzitsua izan, "beroketa" moduan hartu genuen. Bigarrena izan zen garrantzitsuagoa, munduko txapelketa izan baitzen. Lehenengo txapelketa-ko partaideak, Italia, Errusia, Brasil eta gu, Euskadi, izan ginen. Bigarrenengoan, berriz, Italiak, Errusiak, Australiak, Brasilek, Galiziak eta guk hartu genuen parte.

Kontatu pixka bat txapelketaren nondik norakoa.

Kontatu pixka bat txapelketaren nondik norakoa.

Bi talde egin zituzten, eta bakoitzean liga moduko bat egin zen. Gu, A taldean bigarren geratu ginen, eta B taldean lehenengo geratu ziren.



Errusiarren aurka jokatu genuen. Irabazi, eta finalera iritsi ginen. Brasilen aurka jokatu genuen finala eta hiruna berdindu genuen. Prorrogan bana geratu ginen eta azkenik, penaltietan irabazi genuen.

Munduko txapeldun suertatu arren komunikabideetan ez da gehiegi entzun. Nesken txapelketa zelako agian?

Ez zaizu batere arrazoirik falta. Mutilen txapelketa izango balitz askoz ere entzute handiagoa izango zuen. Hala ere, esan beharra dago Cerdeñan bertan garrantzi handia izan

zuela. Komunikabideetan egunero ateratzen ginen eta finala telebistaz eman zuten. Horrez gain oso pertsona garrantzitsuak sentitu ginen, pentsa, autografoak sinatzen ere aritu ginen!

Futboleko jokatzearaz gain opor txiki batzuk ere pasa dituzu...

Oporrak? Eta ez nolanahikoa. Bero handia egiten zue-
nez partiduak gauetan izaten ziren. Beraz, aukera izaten genuen herria ezagutu, hondartzara edo igerilekura joan, jendea ezagutu, eta abar egiteko. Hori guztia entrenamendurik edo harrerarik izaten ez bagenuen, noski. Bukatzeko, esan nahi nuke bidaia honen atzean lan handia egon dela eta guztia posible izan dela Pitxi Federazioko lehendakaria, Fernando Prados entrenatzailea eta Amaia delegatuari esker.

Zelai Amenabarro

Jubilatuen irteera

Uztailaren 23an izango da hurrengo jubilatuen irteera. Oraingoan Iparraldea bisitatzeko aukera izango da, Baiona, Miarrizte eta Donibane Lohitzune hain zuzen ere. Bazkaria, berriz, Hondarribiko Beko Errota jatetxean izango da. Bidaia honetan parte hartu ezin dutenek, jubilatuen tabernan bazkaltzeko aukera izango dute.

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11

www.anzizar.com

BEASAIN

Alpe

SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN



Kamioiek badute aparkalekua

Datorren hiletik aurrera, herriko kamioilariak Benta Txiki ondoko aparkalekuan utziko dituzte beraien ibilgailuak. Kamioiak herri gunetik ateratzeko Udalak egin duen aparkaleku berria bukatzeaz dago, eta okerrik ez bada oporretatik bueltan martxan egongo da.

17 kamioientzako lekua dago gune berrian. Hesituta-ko aparkalekuaren barruan etxola bat ere jarri dute. Barruan dutxa eta komunak jarri

dituzte kamioizaleek erabili ditzaten.

Proiektua udalak bultzatutakoa den arren, aparkaleku berriaren kudeaketa herriko kamioilarien esku utzi nahi dute. Bakoitzak bere giltza edukiko du eta aparkalekuko antolamendua beraiek egitea da helburua.

Oraingoz dozena bat lagun-ek utziko dute kamioia aparkaleku berrian. Guztiak herri-tarrak dira.

Xabier Urteaga



San Fermin

Iruñetik 70 kilometrora, baina hangoen ilusio berdinarekin aritu ziren herriko neska-mutikoak Nafarroako hiriburuko jaiak ospatzen. Uda Kirola kanpainan parte hartzen ari diren neska-mutikoak dira.



Etxegarateko trikuharria industen

Etxegarateko trikuharria industen ari dira ekainaren 25az georoztik, EHUKo Historia fakultateko irakasle eta ikasleak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Idiazabalgo Udalaren dirulaguntzarekin. Kultur etxean dute ostatu.

Idiazabalen trikuharrietan aberatsa da. Zorroztarriko trikuharria, Etxegaratekoa, Aitxu, Praalata, Unanabi, Urrezuloko armurea, Atxurbi eta Napalatzako trikuharriak daude. Trikuharri zaharrenak behe aldean daudena dira Zorroztarrikoa, Etxegaratekoa eta Otzaurtekoa. Indusketa hauen helburua, "trikuharri hauek zein erabilera izan duten ezagutzea, zein lotura izan dezaketen, ekonomia aldetik zein aldaketa izan dezaketen... aztertzea", da Joxean Mujikak adierazi digunez, "trikuharriak ez dira hilobiak bakarrik. Seguruenik hasiera batean erabiliko zituzten muga gisa. Talde bat bazegoela adierazteko eta talde horrek lurralde bat aldarrikatuko zuen berarentzat. Trikuharriak zer garaitan eraikitzen hasten diren jakiteko garrantzitsua da indusketa hau. Dirudienez, orain dela 5.300 urte hasten dira eraikitzen. Aldaketa bat badago aurreko ohiturekin. Aurretik ez zuten horrelakorik eta arrazoen bategatik hasten dira mendialdean trikuharriak eraikitzen", gaineratu du.



Triatloia

Uztailaren 24an, osteguna, arratsaldeko 7etan jokatu-ko da herriko triatloia. Urteroko zita izaten da. Korrika kilometro eta erdi, bizikletan bi eta erdi eta igeri 100 metro egin beharko dituzte. Dagoeneko 14 lagunek eman dute izena. Horien artean zozketa egingo dute, hiruko taldeak osatzeko. Probak txandaka egingo dituzte, taldeko bakoitzak hiru probak egin beharko ditu. Triatloia bukatu ondoren, afaria egingo duten plazan.

Triatloiarekin bukatuko da kirol ikasturtea. Uztailaren 22an, tenis txapelketaren finala jokatu-ko da, 19:00etan Kirol-degi ondoko tenis pistan. Uda kanpaina uztailean bukatuko da.

Sabino Auzmendi, bertsozale bertsolaria

Sabino Auzmendik duen altxorren jakitun, berarekin egin genuen hitzordua. Hizlari prestua da Sabino, hitzjariorparokoa. Bere altxorra ez da materiala, balio historiko eta sentimental izugarrikoa baizik. Azken 10 urteotan 2000 bertsotik gora idatzi eta gorde ditu, txukun, batzuk grabatuta, guztiak makinaz idatzita. Ordenagailuari gusturik ez omen dio oraindik hartu, baina Olivetti zaharrak gehiago ezin eta orain idatz makina elektrikoak omen darabil lehenengo eskuz idazten dituen bertsoren transkripzioak idazteko.

Bertso idazten noiz hasi zen galdetuta, nire harridurarako, duela hamarren bat urte edo hasi zela erantzun dit, lantokitik jubilatuta eta handik aldi batera. Herrian garai hartan puri-purian zegoen gai baten inguruan egin omen zuen lehen bertsoa, menditik buelta egin ostean etxera etorritako patxaran jarri zenean gai hura burura etorri eta bertso bat tajutzeko moduko gaia iritzita. Ordudanik bi mila bertso inguruko altxorra pilatu du gai desberdinen inguruan. Horrenbeste bertsoren oinarrian gai desberdinak izango direla eta zein gaik inspiratzen duten galdetu nion hurrena. "Edozeri" buruz egiten omen du bertsoa, telebistako berrietan aipatzen diren miseriak, herriko gora-beherak, horrenbestetan aipatzen duen Urdangaingo iturriari buruz, Atsedan-Tokitik egiten dituzten irteeren nondik norakoak... "egun batean 31 bertso osatu nituen, hildako bertsolariei egin nien bertso bana zortziko txikian".

On Joxemiel Barandiaran zenari ere idatzi omen zizkion 39 kopia, bere burua Joxemielen paperean jarrita, zerutik begira ikusten zituenak gaitzat hartuta. Koplaok gainera, Internetean aurkitzeko aukera omen dagoela dio irribarre artean, bere bertsoek hor egoteko adinako baliorik dutenik ere sinesteak lanak emango balizkio bezala.

Izan ere apal jokatzeko du Sabinok bere bertsoen inguruan jarduterakoan, ez du bere burua bertsolaritzat. "Badakizu, mendira joaten naizenean, Urdangain aldera, Esparrura..., orduan bururatzen zaizkit, gero etxera etorritakoan idatzi egiten ditut gustukoak ditudanak". Memoria izugarria du Sabinok, betidanik izan omen du gaitasun hori, nahiz eta behin eta berriro aipatzen duen behar bezala eskolatzeko aukerarik izan ez zuela. "Badakizu, ni 7 urterekin edo hasi nintzen eskolan, baino Urdangainen bizita eskolara jexteko aukerak urriak ziren guretzat, eguraldia zela, baserriko lanak... Gainera 10 bat urte nituela, anaiak gerrara joan ziren eta niri baserrian geratzea tokatu zitzaidan, baina memoria bai, hori beti izan dut ona. (...) Don Gaspar Intsaustik doktrina irakasten zigun euskaraz eta bukaeran premio bat izaten zen dotrina ikasten zuenarentzat: "Josetxo" liburua. Urte hartakoa nik irabazi nuen". Memoria ona izateaz gain, irakurle porrokatua ere badela aitortu digu Sabinok. Bere etxeko egongelan, eta bere bertsozaletasunaren lekuko isil, lerrotuta dauden bertso liburu guztiak hiruzpalau al-

Aitzol Munduate. Urtebeteko balantzea

Aitaungo bertso eskolan, Jexux Goikoetxea eta Ekaitz Goikoe-txearen gidaritzapean diharduen ikasleatarik bat dugu Aitzol Munduate. Aurtengoan gainera Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan 3. postua lortu du eta bere esanetan "postuak postu huts diren arren aho zapore gozoa" utzi omen dio lorpen horrek, ikasturtea txapelketa horretarako prestatzen eman ostean. "Azken batean, txapelketa hau izan ohi da gure plaza garrantzitsuenetarikoa, urte guztian zehar ez baitugu aukera asko izaten". Bat- batekoari garrantzi gehiago ematen badio ere, "oraindik bertso paperetara gerturatzen duen griña" baduela aitortu digu Aitzolek eta horren lekuko Besaingo Arrano Kultur Elkartek, Bertsoaren Beasaingo Lagunak taldearekin batean antolatutako I. Neguko Bertsopaper Lehiaketan eman zioten saria.

Azken agurra

Aurtengo ikasturteak ere bereak eman ditu eta GOIERRITARRAren osakeran parte hartzen dugunok ere oporrak hartzeaz gara. Badira jada ikasturte batzuk txoko hau betetzeari ekin niola eta uste dut, pena handiz bada ere, iritsia dela garaia tarte hau aire berriz betetzeko. Hori horrela, oporren bueltan beste norbaiten ardurapean izango da hamabostero GOIERRITARRAREkin izaten duzuen hitzordu hau. Ohore bat izan da niretzat orain artean gure herriko berrien eta zuen arteko zubilanean jardun izana. Horregatik eskerrak eman nahi dizkizuet irakurle izan zaituztedean guztioi eta urteotan orri hau taxutzen lagundu didazuen guztioi. Eta bereziki, mila esker Santi Etxeberria, Jexux Goikoe-txea, Pako Urrestarazu eta ama Begoñari, txoko hau taxutzera-koan eskaini dizkidan ideia eta laguntza guztiagatik.

diz irakurriak omen ditu.

Bertsolarien inguruan ere jardun genuen, eta zein duen gustukoan edo kuttunen galdetuta, bat aipatzearen Manuel Lasarte erantzun digu "hiztun egokia zen hura". Ezaugarri hori beharrezko omen du bertsolariak eta horixe aipatzen du garai hartako eta oraingo bertsolaritzak alderatzean, "gaur egun bertsolariek hiztegi aldetik, doinu aldetik duten aberastasuna" nabarmentzen ditu.

Herriko bertsolari gazteak ere hizpide izan genituen, eta bere iritziaz galdetuta "esperimentiarekin jartzen ari dira" erantzun zigun. Bertso eta mendizaletasunaz gain, badu beste zaletasun bat Sabinok: soinua. Aldarretan ikasi zuen soinua jotzen gaitetan eta orain ere aldian behin jotzen jarraitzen du.

Eguneko orduak nola pasatu ezin asmatu ez, du ez, 77 urteko ataundar honek. Bi-

de batez, hilaren 19an bere urtebetetzea dela jakinik, urteaskotarako esateko aprobe-txatu nahi nuke tartetxo hau. Eta bukatzeko, gerra ondorenean, San Prudentziotan, egun Komebasa dagoen Senpereko gaztainarian ospatutako bertso saio batean entzundako bertso haxe. Bertsolariak: Saiburu, Basarri eta Lazkao-Txiki. Gerra ondorena omen zen eta oraindik ere soldadu ugari ikusten omen zen inguru hauetan, eta neska gehienak haien atzetik omen zebiltzan. Hori gaitzat jarri-rik, holaxe kantatu dit Sabinok Lazkao-Txikik abestu zuen bertso hau:

*Azkenaldian gustora dabiltz
hemen kapitain da koronelak
emakumeak engainatzen
hauek ez daude motelak
hauekin txoraturik dabiltza
hemengo neska txepelak
hauek hemen luzaro badaude
beteko dira kupelak.*

Agurtzane Bikuña



Elkartasun oporrak

Udaleko Ongizate Sailak, garapen bidean dauden herrialdeetan lan ezberdinak egiteko aukera eskaintzen die Beasaingo gazteei, bekak edo dirulaguntzak emanez. Gobernu Kanpoko Erakunde ezberdinekin harremanetan jarrita, proiektu ezberdinak garatu behar izaten dituzte beka jasotzen dituztenak.

Aurten, lau gazte joango dira, Bolivia, Ecuador eta El Salvadorra. Boliviara Eider Lopetegui Mujika eta Itziar Mateos Arruabarrena joango dira, argazkian ageri direnak. Iaz beste bi beasaindar neska egon ziren toki berera. Taupadak Gobernu Kanpoko Erakundearekin joango dira, 'Central de pueblos etnicos Moseños del Belí' proiektuan parte hartuko dute. Uztailaren 25ean joango dira, bi hilabeterako.

Itziar Aierbe Zurutuza Ecuadorra joango da, Medicus Mundi erakundearekin. Erizaina da bera eta 'Amazoniako Osasun Fundazioaren' lehen mailako osasun arretako sarearen indartzea' proiektuan parte hartuko du. Orellana hirian egongo da, eta emakumeekin lan egingo du sexu heziketa arloan batez ere. Hiru hilabeterako joango da.

Miren Zufiaurre El Salvadorra joango da. San Salvador hiriburuan bertan egongo da. Mugen Gainetik erakundearekin joango da, 'Arreta osasun integralean, emakumeen antolaketa eta udal gestio komunitarioan indartzea' proiektuan parte hartuko du. 'Kapazitazioak' egiten ariko da Miren Zufiaurre abuztuaren 10etik urriaren 11ra, emakumeen prestakuntzan.

Santiago Bidea bulegoa

Gipuzkoako Santiago Bidelagunen Elkartek Beasainen bulegoa du erromes joan nahi dutenei laguntza eta argibideak eskaintzeko. Ostegunetan eskaintzen du zerbitzu hau 19:00etatik 20:30era Igartzako belen ermitan. Santiago Bidea egiteko informazioa emango da bertan eta gainera, gaiari buruzko hainbat argitalpen eskuratu ditzake bertaratzen denak.

Nekane Altuna

VI. Igartza beka: 9 lan aurkeztu dira

Udalak, CAF enpresarekin eta Elkarlanean argitaletxearekin elkarlanean antolatu duen VI. Igartza literatur sorkuntzarako bekara 9 proiektu aurkeztu dira. Denak ere, 35 urtez behetikoak izaki, bi liburu baino gutxiago argitaratuak dituzten idazleek aurkeztu dituzte. Orain, Julen Gabiria, Jasone Osoro eta Xabier Mendiguren Elizegi epaimahaikideei dagokie erabakia hartzea. Irailaren 6rako emango da emaitza eta ondorengo egunetan egingo da sari-ematea. Alde batetik, iazko irabazleari, Julen Gabiriari sariaren bigarren erdia emango zaio bere idazlana entregatzearen truke eta bestetik aurtengo irabazleari lehen erdia emango zaio garaikurrarekin batera eta urtebete izango du idazlana idazteko.

Euskara ikasleei diru laguntzak

2002ko irailetik 2003ko abuztura bitartean, edozein mailatako Euskalduntze-Alfabetatzeko Euskara-ikasketak Euskaltegiren batean (Udal Euskaltegietan salbu) egin dituzten 16 urtez goitiko ikasle beasaindar guztiek, diru-laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte Udaletxeko Harrera-bulegoan azaroaren 30era bitartean, 9:00etatik 13:00etara. Ikastaro horiek Irailaren edo Udal Euskaltegiaren laguntzarik izan badute edota Administrazioak antolatutako ikastaroak izan badira, ez dute diru-laguntza hau jasotzerik izango.

Laguntzak, ondorengoak izango dira: %50a langabetu txartela ekartzen dutenentzat; %33,33a gainerako guztientzat. 6 urtez behetiko seme-alabak dituzten gurasoek, ikasturtearen hasieran egindako kanpainaren arabera, %75eko laguntza bereziak jasoko dituzte.

Eskatzaileak, klase-orduen %80etara joan izana frogatu behar du ibili den Euskaltegiko agiriaren bidez eta Beasainen erroldatuta egon. Agiri hauek aurkeztu behar dira: matrikula-ordainagiriaren fotokopia; euskaltegiko agiria, klase-orduak, asistentzi orduak eta ikasketa-maila adieraziz; NAREN fotokopia; langabetu txartelaren fotokopia, egoera horretan daudenei; eta kontu korrante zenbakia.

Informatikako euskarazko programa erostunei laguntzak

Beasaingo Udaleko Euskara-batzordeak, 2000. urtean hasitako bidea jarraituz, informatika-arloan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak eskaintzen ditu. 60 euroko laguntza emango die euskarazko programa erostunei, Goisystem, Chip's eta Montte hornikuntzetan. Web-orriak euskaraz jartzen dituzten enpresa, merkataria eta erakundeek ere 60 euroko laguntza izango dute eta berdin, informatikako kontabilitate eta gisako aplikazioen euskarazko bertsioak erosten dituzten, enpresa, merkataria eta erakundeek ere. Horretarako, pertsonak Beasainen erroldatuta egon behar dute eta enpresa, denda, ikastetxe eta gisakoek Beasainen izan behar dute egoitza.

Odol ateraldia

Odol Emaileen Ordezkaritzak jakinarazten du, uztailaren 23an egingo dela odol ateratzea Urbi-etxeke lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaileez gainera, berriren bat animatzen bada, bertan azal dadila.



Ordizia Kale Nagusia, 27
Orain arte gurekin izan
zaretenoi eskerrek eman ez



- ✓ **Keramika**
erakusketa eta
salmenta.
- ✓ **Bainuak, kanilak**
eta osagarriak.
- ✓ **Bainugelarako**
altzari ugari.
- ✓ **Sauna-kabinak eta**
hidromasaia-
bainuak.
- ✓ **Tximiniak, ikatz**
eta egur
sukaldeak.
- ✓ **Iturgintza, gasa**
eta berogailuak.
- ✓ **Igeltseritza**
orokorrean.



AUSO EGI
ITURGINTZA

Urdaneta Kalea, 41

Tfnoa. eta faxa:
943 88 95 76

ORDIZIA

ARAMAKO TABERNA

Aramako plazan

Tel.: 943 888 953



Toki lasaia eta giro euskalduna

Eguneroko menua 7,20 euro

Asteburuko menuak 15 euro

Kaxuelitak

Pintxoak

Plater konbinatuak

Udako terraza

Abuztuan
zabalik



ZELAETA
hortz klinika - clinica dental

Gure hortz klinikan zure ahoa zaintzeko zerbitzu guztiak eskeintzen dizkizugu.

Langile profesionalak osaturiko lan taldea eskeintzen dizugu behar dituzun zerbitzu guztiak eskeintzeko:
Tecnologia aurreratuenak.
Aho tratamendu garantizatuak.
Zerbitzu guztietan esterilizazioa.

ESPEZIALITATEAK

Odontologia estetikoa.
Odontologia orokorra.
Mantenimendu odontologia.
Ortodontzia.
Implantologia: teknologia aurreratuenekin.
Periodontzia.
Aldez aurreko odontologia...

HORTZ ASEGUROAK

Zelaeta Hortz Klinika hainbat Osasun Medikuntza Zerbitzuen koadro medikoen barne dago:
SERMESA: Pakea, Grupo Eroski, Previsora.
IBERSALUD: Asepeyo, U.M.I., MUPA, Mutua Universal.
...

FINANTZIABIDEAK

Ordainketa modu ezberdinak.
Galdeiezaguzu lasai informazio gehiago behar izanez gero:

CLINICA DENTAL ZELAETA HORTZ KLINIKA

Tfnoa. 943 161 018 Garmendia Otaola, 5-Bajo Beasain

CLINICA DENTAL GARAI HORTZ KLINIKA

Tfnoa. 943 884 385 Filipinas, 4-Bajo Ordizia





Festa amaiera bikaina

Uztailaren 5ean eman zitzaien amaiera San Pedro jaiei. Arratsaldean sega ekitaldi paregabea egin zuten Bekotxe eta Xefek, Iparre eta Zabaloren aurka. Azken hauek izan ziren irabazleak. Aurtengoa 4. ekitaldia izan da eta bikote bakoitzak bina txapel irabazi ditu. Dena den, lauek ere erakustaldi bikaina eman zuten inolako zalantzarik gabe.

Arratsaldetik hasita herriko umeak, gurasoak moztortu ziren eta gauean izan zuen jarraipena moztortu festak. Ederki asko jantzita ager-

tu zen herritar talde bat eta azkeneko momentuan Aita Santua, bere erizainaren laguntzarekin, herriko plazan izan zen.

Egun biribila hitz gutxitan esanda. Aurtengoa Trakets taldearen dantzaldiarekin amaitu zen.

Tonbolako zenbaki saritua

286 zenbakia da, tonbolako sari bereziko oparia irabazi duen zenbakia.

Iñaki Ugalde

Jubilatuen eguna

Uztailaren 20an ospatuko dute herriko jubilatuek ondo merezitako eguna. Meza izango da 12:30ean ermitan eta ondoren bazkaria Mujika jatetxean.

Aisialdia umeentzat

Urriaz geroztik Kultur etxean, herriko umeak astean bitan elkarrekin jolasteko, marrazteko, irakurtzeko aukera izan dute. Herrian alde horretatik zegoen gabeziak jabeturik haurren gurasoek eta Maite Zabaleta dinamizatzaileak ekintza desberdinak egin dituzte hilabete hauetan zehar. Egia esan emaitza ona izan da eta uztailaren ere jarraitzeko asmoa dute. Astelehen, astearte eta ostegun goizetan elkartu eta elkartuko dira, goizeko 10etatik aurrera.

San Pedro jaien ondorena

Ekainaren 27an, ostiralean, hasi eta 29ra arte iraun dute aurtur herriko jaiak. Ekitaldiz betetako hiru egun izan dira.

Ostiralean festei hasiera emateko sagardo probaketa izan zen eta urtetik urtera jende gehiago etortzen da eta aurtengoa horren lekuko izan da. Jende askok aipatu zuen Gurruntzain frontoia txiki geratzen ari dela, urtetik urtera gero eta arrakastatsuagoa egiten ari den ekitaldia.

Bertaratutakoei eta festa batzordearen antolaketa bikainari esker, laguntza polita bideratu ahal izango da, 'Berria' euskarra hedabide berri bultzatzeko. Musika izan da festetako beste osagaietako bat, dantzaldi bikainak eman zituzten ostiraleko eta larunbateko taldeek eta harritzeko modukoa plazan dantzan aritu zen jende kopurua. Ume jolasetan eta patata tortila lehiaketan ere giro ederra izan zen.

Azkenik, igandean, herri kirolek bete zuten denbora handiena, arratsaldeko Setan pilota partidak jokatu ziren eta ondoren Zurgai herri kirol taldeak ikuskizun bikaina eskaini zuen.

Bola lehiaketako irabazleak

Larunbatean: Zeferino Agirre. **Igandean:** Marzelino Agirre. **Herriko lehenengoa:** Martin Aranburu. Bi egunetako batz bestekoa kontuan hartuz, lehenengo Marzelino Agirre eta bigarren Bizente Gerra.

Toka lehiaketa

Irabazlea: Iñaki Maiz. **Herriko lehenengo emakumezkoa:** Tere Arruabarrena. **Herriko lehenengo gizonezkoa:** Fermin Olaetxea.

Patata tortila lehiaketa

Jose Mari Telleria eta Jon Ugaldek osatutako bikoteak irabazi zuen.

Sokatira lehiaketa, aurtengo berrikuntza

Aurtur nobedade moduan, sokatira lehiaketa egin zen larunbateko herri afariaren ondoren, herriko ezkondu eta ezkongabeen artean. Emakumezkoen artean ezkongabeek irabazi zuten eta gizonezkoen artean ezkonduak.



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Legurreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda. **Legazpi:** Jabi harategia.

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA



kutxa

gizarte ekintza

Joanes Aierbe eta Xabier Lerma ordiziarrek Euskadiko errugbi selekzioko kide

Xabierrek 23 urte ditu eta 12 urtez geroztik ari da errugbian.

Joanesek 26 urte ditu eta 14rekin hasi zen jokatzeko. Lehenengo Joanes eta ondoren Xabier duela 3 edo 4 urte hasi ziren Euskadiko selekzioan parte hartzen, bai lagunartekoetan, Espainiako Autonomi artekoetan, bai eta Europako eskualdeen artekoetan. Titular bezala azken bi partiduetan aritu dira. Progresio bat izan dute, hasieran gutxi jokatzetik orain partidu osoak jokatzera.

Duela bi urte hasi zen Europako eskualdeen arteko lehiaketa. Lehenengo estatu bakoitzeko txapelketak egiten dira eta bakoitzetik lehenengo biek jokatzeko dute Europa mailakoa. Profesionalak ez diren jokalarientzat da lehiaketa. "Iaz lehen partida Suedian jokatu genuen, gero Eibarren Italiako Lazoren aurka eta azkenik Frantziako



Ezkerrean Xabier Lerma, eskuinean Joanes Aierbe eta bien erdian Axio Araña Ordizia errugbi taldeko entrenatzailea.

Probenzaren aurka galdu genuen. Azken horiek izan ziren lehiaketako txapeldun. Txapelketa antolatu den lehenengo bi urteetan frantziarrak izan dira garaile", diote.

Aurtengo lehen partida Hungarian jokatu dute. Xabier izan da bertan, Joanes leionatuta baitzegoen. Hasieran larri xamar ibili baziren ere azkenean partidua aurrera ateratzea lortu zuten. Irailean Italian Lombardiaren aurka izango dute hurrengo kanporaketa.

Bi mutil sendo

Biak ere aurrelariak dira eta zer esanik ez, mutil sendoak. Ordiziako taldean biek 3. lerroan jokatzeko dute. Selekzioarekin Joanes 3. lerroan aritzen da eta Xabier 2.era pasatzen da.

Orain lehiaketarik ez badute ere uda guztia gelditu egon beharrean beraien kontura entrenatzen ari dira. Korri pixka bat egiten dute eta errugbi zelaiako aldageletan duten gimnasio koxkorrean aritzen dira entrenatzen.

Datorren denboraldian ohorezko B mailan

Irailetik aurrera Ordiziako errugbi taldeak ohorezko B mailan jokatu du. Taldeko jokalariek guztiek lan horretan inplikatzeko nahi izan dute eta gustura daude lortu duten igoerarekin. Maila handiagoko taldeen aurka jokatu dute eta hori beraientzat erronka handia da.

Duela 5 urte maila berean egon zirenean 18 eta 21 urterekin esperientzia gutxi zuten. Ordiziako jokalariek ziren eta hori ordaindu zuten. Ondoren 4 urte kostatu zaie berriro mailaz igoetzea. "Zulo batean sartuta bezala egon gara 4 urte hauetan. Talde bezala progresioa ikusi da. Beheko mailan 10 taldeetatik 3 edo 4-k bakarrik ematen ziguten lana eta horrela zaila da motibazioari eustea. Ohorezko B mailan nahiz eta partiduak galdu talde handien aurka jokatu gustura arituko gara. Ikusi, ikasi eta jokoa hobetzeko modua da. Gainera, goi mailakoak izandako errugbilaria asko daude ohorezko B mailan", diote.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



MUGAR

Argiztapenak



Jai zoriontsuak igaro ditazue!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA



ORDIZIA
BIDEO
KLUBA

☎ 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA



ARANDIA
Garajea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

Iurre Auzoa

OLABERRIA

IN AUSTI



KARROZERIA

N-1 errepeidea, lurre auzoa

☎ 943 88 43 01

OLABERRIA

Eñaut Gereñu Munduko txapelketara joan gabe, gutxieneko denbora egin arren

Ekainaren 28 eta 29an Espainiako atletismo txapelketan Eñaut Gereñu ordiziarrek 2. postua lortu zuen 200 metroetan, 22:35eko denborarekin. Munduko txapelketara joateko 22:40 egin eta lehen bi postuetan sailkatzea behar zen. Bi baldintzak betetzen zituen, baina diru arazoak direla eta ez dute Kanadan jokatu diren Munduko txapelketetara joateko aukeratu. Lehen sailkatua bakarrik joango da.

Eñaut da jubenil mailan Munduko txapelketarako gutxieneko denbora egin duen lehen goierritarra. "Lehengo batean entzun nuen Gipuzkoan ere lehenengoa izan naizela", dio.

Urte hasieran txantxetan esan zuen Munduko txapelketara joango zela. Denboraldia aurrera zihoan eran ikusi zuen denboretan gerturatzen



ari zela, 22:74tik 22:46ra jaitsi zuen kolpetik, eta serioago hartu zuen. "Entrenamendu onak egitearen eta gogoa jartzearen emaitza da hori. Garrantzitsua da baita ere lesioek errespetatzea, masajeak hartu eta zaindu beharra dago horretarako", azaldu digu ordiziarrek.

16 urte ditu eta jubeniletan beste denboraldi bat geratzen zaio. "Aurten Espainia mailan nire aurretik ibili direnak urte bete zaharragoak ziren eta datorren urtean aurrera-

xeago ibiltzea espero dut. Irabaztea jarriko dut helburu bezala. Gero junior mailara pasako naiz eta hor beste kontu bat izango da", dio.

Atletismoaren munduan aurrera egitea zaila dela dio. "Asko entrenatu behar da eta zorte pixka bat behar da. Behin 18 urtetik aurrera bizitzeko adina ez baina zerbait ateratzen da, bekak direla eta posible da, baina, oso zaila da. Distantzi motzetan giharrak asko indartzen dira eta errazagoa da lesioak izatea.

Garrantzitsua da zangoak osorik mantentzea". Oraingoz, kirolari promesa bezala urtean 70.000 pezeta jasotzen ditu masajetan-eta gastatzeko.

Distantzia motzeko korrikalaria

8-9 urterekin anaiari jarraituz hasi zen atletismoan, beti ere distantzia motzetan. Euskadiko txapelketetan orain arte 100 eta 200 metroko probak irabazi ditu. Irteeran pixka bat huts egiten du eta horregatik bere ezaugarrientzat egokiagoa da 200 metroko proba 100ekoa baino, erreku-peratzeko denbora ematen baitio.

Kirol horretan aritzeko entrenamenduak ere bereziak egin behar izaten ditu Eñautek. Astean 5 egunetan entrenatzen du. "Egun pare batean pesak egiten ditut indarra hartzeko eta besteetan korrika serieak, 150 eta 300 metrokoak, baita motzagoak ere 30 eta 40 metrokoak", azaldu digu.

BAKAS
ARROPADENDA

- MISS SIXTY
- KILLAM
- INDIAN ROSE
- ...

- % 50

Tel: 943 88 79 92
Garagarza plaza 3
20240 ORDIZIA

EROSKI
KAFETEGIAK
Jai zoriontsuak
opa dizkizue

☎ 943 88 27 93 ORDIZIA

KORO
FISIOTERAPIA
ERREABILITAZIOA

Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

Xikel

Jai zoriontsuak!

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41 ☎ 943 16 16 06 - 619 770 600 ORDIZIA



Lan-taldeak ezagutuz (II)

Aurrekoan esanda bezalaxe lan-taldeak ezagutzen jarraituko dugu, KMK03 ondo aterako bada behar-beharrezkoak baititugu, batetik, diru sarrera handia delako eta egunean bertan zer edo zer gaizki ateratzen bada, aurretik egindako lana hortxe dagoelako eta bestetik, talde hauek elkar ezagutzeko aukera eta lan-giroa bermatzen dutelako.



Mari Jose Beloki

Arropa arduraduna

Marijo, ez da honetan ari zaren lehenengo aldia, ezta?

Laugarren urtea dut hau. Azpeitin hasi, ondoren Beasainen, Urretxun eta orain Lazkaoan ari naiz.

Zertan aritzen zara?

Egin beharreko lana handia da. Lan hau arropa erostetik hasten da, gehienetan ferietan eta muestrarioen bidez egiten dut eta ez da lan samurra izaten, ondorengo lana azpiegitura taxutzea da, hau da; lan taldeak egin, ardurak banatu, egitekoak zehaztu, eta abar luzea. Arropa jaso ondoren hiru betebeharrak nagusi ditugu, batetik denda antolatzea, bigarrena irteerak zehaztea eta azkenik biltegia osatzea. Lehenengo bilerak logoa auke-

ratzeko izaten dira, erakargarria eta berria izan behar baitu.

Ondo ari al zarete saltzen?

Ondo oso. Uste dut marka guztiak hausten ari garela. Hamahiru mila jantzi etiketatutako ditugu eta hamabost bat mila xerigrafiatu. Jantzi estantpatuei etiketak jartzen dizkiegu, beste batzuk bordatu eta kamixetak xerigrafiatu egiten ditugu, ez da ez lan makala.

Zenbat lagun ari zarete honetan?

Ehun lagunetik gora ari gara, urte osoko lana da eta jende asko behar da, diru sarrerak ere handiak baitira.

Egunerako zer?

Egunari begira lasai gabiltza, oraingoz dena oso ondo ari baitzaigu ateratzen, sei denda izango ditugu eta ehun eta hogeita bost lagun arituko gara egun osoan erreleborik gabe.



Karmele Barandiaran

Txiskero arduraduna

Zein da zehatz-mehatz zure lana?

Hitz gutxitan esateko txiskeroak saltzea. Apirilean hasi ginen txiskeroak jasotzen, gure lana jakar ireki, paketeak banan-banan albaranarekin konprobatu, herriz herri gabiltzanon artean banatu eta saltzea da. Lan honetan zortzi

bat lagun aritu gara buru berri, baina tokian tokiko laguntzaileak ere izan ditugu, Pani gaztea, Santoyo eta ikas-tolarekin zerikusirik izan ez arren, laguntzen aritu direnak alegia, eta hori eskertzekoa da.

Txiskeroak banatu ondoren tabernaz taberna ibili behar izan dugu saltzen. Kajaka saldu ditugu eta saldu ahala jaso dugu dirua.

Zer moduzko salmenta izan duzue?

Oso ona, egia esan. 22.000 txiskero saldu ditugu dagoeneko, orain arteko Kmk gutxietan gehien saldu dugunak omen gara.

Arazorik izan al duzue?

Oro har ez, akaso herriren batean saltzeko eragozpen gehixeago izan dugu, baina ez arazo larriarik ez. Gipuzkoan ibili gara eta mugako zenbait tokitatik ere deitu digute txiskeroen bat edo beste saltzeko, gainerakoan ez gara beste lurraldeetan sartu, han ere haien jaiak eta txiskeroak izaten baitituzte.

Hemendik aurrera zer?

Eskatu beharreko txiskeroak eskatu ditugu eta hemendik aurrera deitzen diguten lekue-tara joan eta horniketa lana izango dugu.

Martin Agirre

Auto zozketaren arduraduna

Nondik hasi zineten?

Hasteko etxe desberdinetara joan ginen, baldintzarik onenak nork jartzen zizkigun ikustera. Autoa aukeratu ondoren errifak egin eta San Prudentziotarako martxan hasiak ginen. Handik aurrera-koak, autoa hartu eta herriz herri ibiltzea boletu saltzen. Esan beharra dago batetik



bestera darabilgun autoa ez dela zozketatuko dena, horrelakoxe beste berri bat baizik. Hamalau bat lagun gabiltza eta izugarritzko lan-taldea osatu dugu, giro ona eta mar-txa hobea. Hirunaka edota launaka ateratzen gara eta egun pasa joaten gara joan behar dugun lekura.

Eta ondo ari al zarete saltzen?

Ikaragarri, hirurogei mila bo-letu saldu ditugu jada eta beste berrogei mila saltzeko as-moa daukagu.

Arazorik izan al duzue?

Ez, oraingoz ez. Ezezko txar-rik edota purrustadarik ez dugu jaso eta ez da gutxi. Orain arteko lana ondo joan bada hemendik aurrerakoa ere ondo joango delakoan gaude. Baditugu gainera zoz-keta berezi samarrak, abuz-tuaren bederatzian Donostia-ko klasika izango da eta Be-lokiren mailota zozketatzeko asmoa daukagu, baita estro-pada egunean ere. Egun ho-rietarako deia egin nahi nieke herritarrei, errifak saltzeko jende asko beharko baitugu.

Eta egunari begira?

Egunari begira, aurrikusitako guztia saldu ezean, hortxe aritu beharko dugu eta salduz gero, berriz, bestelako lanen batean. Ondoren boletu sari-tua aukeratu beharko dugu eta hori guztia noski notario-aren aurrean egingo dugu.

musika

GABIRIA:

Abuztuak 14, Nekin talde-arekin dantzaldia, gauean.

Abuztuak 15, Trikizio taldea, gauean.

Abuztuak 16, Trikizio taldea, gauean.

LAZKAO:

Uztailak 23, Drindots musika taldea, Euskadi plazan, 22:00etan.

Abuztuak 28, Joseba Iparagirre eta Ander San Jose trikitilariak, Maizpideko jangelan, 21:00etan.

ORDIZIA:

Uztailak 18, Beti Argi musika bandaren dantzaldia, 23:00etan, Plaza Nagusian.

Uztailak 25, Laguntasuna Errondailaren kontzertua, Plaza Nagusian, 13:30ean.

Uztailak 25, 'Emperadores' mariatxiak, Alde Zaharrean, 20:00etan eta 23:00etan, Domingo Unanue plazan.

Uztailak 25, Dantzaldia Tekila orkestrarekin eta Koxkola txarangarekin, Plaza Nagusian, 24:00etan.

Uztailak 26, Chatanga Ben be perkusio taldea, Alde Zaharrean, 19:30ean.

Uztailak 26, Son eta bolero gaua: Migdalia Hechavarria abeslaria eta 'Kubason' boskotea, Domingo Unanue plazan, 22:30ean.

Uztailak 26, Joselu Anaiak, Plaza Nagusian, 23:30ean.

ZALDIBIA:

Uztailak 18, 4 Itzal taldearen kontzertua, 23:30ean.

ZERAIN:

Abuztuak 14, Enetz taldearekin dantzaldia, gauean.

bestelakoak

LAZKAO:

Abuztuak 6, Aitor Marzilla eta Txispi magoak, Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

Abuztuak 12, Koldo Amestoy ipuin-kontalaria, Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

Abuztuak 26, Doro Zobarán, 'Kontu kontari, kantu kantari', Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

ORDIZIA:

Uztailak 26, Marsel magoa eta Rosa Maria Martinezen txotxongiloak, Barandiaran plazan, 18:00etan.

ZERAIN:

Abuztuak 14, Potxin eta Patxin pailazoak, 16:30ean.

bertsoak

GABIRIA:

Abuztuak 14, Bertso jaialdia: Igor Elortza, Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Sustrai Colina, Iñaki Apalategi eta Iñigo Izagirre. 22:00etan, parrokiako antzokian.

LAZKAO:

Abuztuak 26, Bertso-trama Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan. Bertsolariak: Igor Elortza, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio eta Jon Maia. Tramagilea: Josu Goi-ketxea.

ZERAIN:

Abuztuak 16, bertso afaria Lizaso eta Lazkano bertsolariekin, 20:30ean.

antzerkia

ORDIZIA:

Uztailak 18, Urrup antzerki taldearen bi lan: Dario Foforen 'Margolariak ez dute oroitzapenik' eta 'Ez dago lapurrik onik ez dakarrenik'. Herri Antzokian, 22:15ean.

Uztailak 25, Trapu Zaharra aldearen 'Elvis vete ya!' kale antzerkia, 19:30ean, Alde Zaharrean.

erakusketak

BEASAIN:

Abuztuaren 31ra arte, 'Le tour du monde' erakusketa, Igartzako jauregian.

ORDIZIA:

Uztailaren 22ra arte, Patxi Moralesen pintura tailerreko ikasleen lanak ikusgai Barrena.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.
Uztailak 19-20: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943 880628.
Uztailak 26-27: De la Cuesta (Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.
Abuztuak 2-3: Atorrasagasti (Bustuntza auzoa, Ordizia). 943 882934.
Abuztuak 9-10: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.
Abuztuak 16-17: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.
Abuztuak 23-24: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
Abuztuak 30-31: Larnaga (Kale Nsgusia, 4 - Ordizia). 943 881828.





5 pertsona, komunikazio eta diseinu bokazioari
esker elkartuak, gaur talde batu 1 gara
inspirazioaren etengabeko bilakeran.

Gure jaiotzetiko imaginazioa; gure kreatibitate
bai grafikoa bai idatzizkoa; gure planifikazio
estrategikoa eta komunikabideekikoa... gaur
gure bezeroen komunikazio behar aldakor eta
ezberdinen menpe daude.

IDEIA GEHIAGO. EMAITZA HOBEAK.

Martina Maiz, 3 Entpfa of.2 20200 Beasain Gipuzkoa
Tel:943 882 257 Fax 943 027 639 ah@clieka.com

